



Financiado por la Unión Europea - [NextGenerationUE](#)

# Mugikortasun elektrikoari lotutako pizgarri-programa, Europako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan

(MOVES III programa).

## Oinarriak

## Mugikortasun elektrikoari lotutako pizgarri-programa, Europako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan (MOVES III programa).

### 1. Programaren xedea, araubide juridikoa eta laguntzaren izaera

- 1.1. 2021eko apirilaren 14ko 89. Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuz, *Europako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan mugikortasun elektrikoari lotutako pizgarri-programak (MOVES III) egikartzeko autonomia-erkidegoei eta Ceutako eta Melillako hiriei laguntzak zuzenean ematea onartzen duen apirilaren 13ko 266/2021 Errege Dekretuak* (hemendik aurrera, **266/2021 ED**) mugikortasun elektrikoari lotutako pizgarriak emateko oinarri arautzaileak ezartzen ditu, Europako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan (hemendik aurrera, **"MOVES III programa"**).

266/2021 Errege Dekretuaren xedea da mugikortasun elektrikoari lotutako bi pizgarri-programa onartzea, biak ere Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparru orokorraren eremuan, honako hauei buruzkoak:

- a. 1. *pizgarri-programa* - Ibilgailu elektrikoen erosketa sustatzea.
- b. 2. *pizgarri-programa* - Kargatze-azpiegiturak zabaltzen laguntzea.

266/2021 Errege Dekretuaren helburua da, beraz, European eskumenekoak diren erakundeek onartuko duten Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren ezarriko diren helburuak alde aurretik betetzen eta garraio-sektorearen deskarbonizazioa sustatzen laguntzea, mugikortasunaren elektrifikazioa sustatuz 2021-2030 Energia eta Klima Plan Nazional Integratuan eta Kutsadura Atmosferikoa Kontrolatzeko Programa Nazionalen ezarritako helburuak betetzeko, estatuko lurralde osoan ibilgailu elektrikoen erosketa eta kargatze-azpiegitura egokia sustatuz.

Aipatzekoa da, gainera, 266/2021 EDaren bidez mugikortasun elektrikoaren sustatzea zuzendutako laguntza-programa baten deialdia justifikatzen duten arrazoi eta helburuak erabat lerrokatuta daudela Eusko Jaurlaritzaren Energia Politikaren helburuekin, hau da, 2030erako Euskadiko Energia Estrategia dokumentuan (3E2030) gauzatutakoekin. 2030erako Euskadiko Energia Estrategiaren misioa, beharrezkoa den bultzada publikoaren bidez, energia-kontsumoan efizientzia gehitzekoa da eta, horrekin batera, energia-sistema lehiakorrago, jasangarriago eta seguruago bat lortzea, ingurumen-inpaktua gutxitu denez, kontsumorako edo produkziarako energia gutxiago beharko denez, eta kanpo energia-baliabideekiko dependentzia murriztuko denez. Hori guztia, energia-kontsumoa arrazionalizatzea eta salgaien garraioan eta pertsonen mugikortasun efizientean petrolioarekiko mendekotasuna murriztea helburu duten ekintzak sustatzeko helburu nagusiarekin, garraiatzeko modu efizienteagoetarako transferentzia, energia berriztagarrien erabilera, energetikoki efizienteagoak diren teknologien erabilera, eta Euskal Autonomia Erkidegoko (hemendik aurrera, "EAE") lurraldean kargatze elektrikoarako eta erregaien hornikuntzarako beharrezkoak diren azpiegituren erabilgarritasuna ahalbidetuz.

- 1.2. Aipatutako 266/2021 EDaren bidez adostu da MOVES III Programako laguntzak zuzenean ematea autonomia-erkidegoei eta Ceuta eta Melilla hiriei, ezarritako banaketa-irizpideei jarraikiz, 400 milioi euroko zenbatekoaz, dekretuaren V. ERANSKINEAN finkatutakoari jarraikiz, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasurako 18.718.371 euroko zenbatekoaz zehazki.

Horrenbestez, Europako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan mugikortasun elektrikoari lotutako MOVES III pizgarri-programa honetara (aurrerantzean **"Programa"** edo **"Laguntza-programa"**) bideratutako hornidura ekonomikoa 18.718.371 euro

da, Energiaren Euskal Erakundearen (aurrerantzean “EEE”) aurrekontuetan ezarritako kredituaren arabera.

Behin dagozkion zeharkako kostuak kenduta (% 2,50) eta % 10eko erreserba eginda Eusko Jaurlaritzak burutuko dituen zuzeneko inbertsioak egiteko, 266/2021 EDan ezarritakoari jarraikiz, laguntzen azken hartzaileei bideratutako gehieneko zenbatekoa **16.378.574,63 euro** izango da.

- 1.3. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1 artikulua arabera (aurrerantzean “LGS”) 2021eko maiatzaren 10ean egindako bileran, Energiaren Euskal Erakundearen (aurrerantzean “EEE”) Kontseiluak erabaki zuen, besteak beste, 2021. urterako EEEren Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren eguneratzea onartzea, laguntza-programa hau horren barruan dagoelarik.

EEEren 2021erako Dirulaguntza Plan Estrategikoa honako helbide honetan dago eskuragarri: <https://www.eve.eus/Corporativo/Portal-de-Transparencia/EVE.aspx>

- 1.4. Laguntza-programa honen barruan ematen diren dirulaguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzat hartuko dira.
- 1.5. Laguntza-programa hau zein programa aplikatuz ematen diren dirulaguntzak bateragarriak dira barne-merkatuarekin, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. artikuluko 3. idatz-zatian xedaturik dagoenaren arabera, eta salbuetsirik daude tratatu bereko 108. artikuluan Batzordeari jakinarazteko ezarritako dagoen betebeharratik.

a. Laguntza horien azken hartzaileak pertsona fisikoak badira, merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoren bat egiten dutenak (autonomoak), minimis laguntzei Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluko aplikatzeari buruzko 2013ko abenduaren 18ko Batzordearen 1407/2013 Erregelamenduan (EB) ezarritako betekizunak eta mugak ezarriko zaizkie (aurrerantzean, “**Minimis Erregelamendua**”), aplikatzeak izan litezkeen zuzenbide nazionaleko zein Europar Batasuneko gainerako xedapenei kalterik egin gabe, bereziki Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa zein Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritu eta kudeatzearen eremuan onartzen diren xedapenei dagokienez.

b. Laguntza horien azken hartzaileak enpresak badira, berriz, hau da, jarduera ekonomiko edo merkataritzakoren bat egiten duten pertsona juridikoak, 2014ko ekainaren 17ko Batzordearen 651/2014 Erregelamenduan (EB) ezarritako betekizunak eta mugak ezarriko zaizkie, horren arabera laguntza kategoriatan jakin batzuk barne-merkatuarekin bateragarritzat jotzen direlako Tratatuaren 107. eta 108. artikuluko aplikatuz (aurrerantzean, “**651/2014 Erregelamendua**”), ingurumena babesteko laguntzen kategoriagatiko salbuespena aplikatuz (7. atala), aplikatzeak izan litezkeen zuzenbide nazionaleko zein Europar Batasuneko gainerako xedapenei kalterik egin gabe, bereziki Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa zein Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritu eta kudeatzearen eremuan onartzen diren xedapenei dagokienez.

Xede horretarako, eta 651/2014 Erregelamenduko 11. artikuluko a) letran ezarritakoa betez, Estatuak Europako Batzordeari bidali zion 266/2021 Errege Dekretuaren bitartez araututako pizgarri-programei buruzko informazio laburtua (SA.62820 eta SA. 62821, hurrenez hurren).

## 2. Laguntzen azken hartzaileak

2.1. Jarduera mota bakoitzerako aurreikusitakoaren arabera, betiere egoitza fiskala EAEn badute eta laguntzako jarduketa EAEn badago, laguntza-programaren deialdiko dirulaguntzen onuradun izan daitezke, oinarri hauetan eta 266/2021 EDan adierazitako irizpideen arabera:

1. Merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoak garatzen dituzten pertsona fisikoak, Foru Ogasunetako Enpresaburu, Profesional eta Atxikitzaileen Erroldan, edo, bidezko bada, Zerga Administrazioako Estatu Agentzian alta emanda egon beharko dutenak.
2. Adin nagusikoak diren pertsona fisikoak, egoitza fiskala Espainian izanik aurreko idatz-zatian bilduta ez daudenak; desgaitasuna dutenak, aldiz, adingabeak izan daitezke.
3. Jabetza horizontalari buruzko uztailaren 21eko 49/1960 Legeak araututako jabeakideen erkidegoak, azaroaren 17ko 38/2003 Legean aurreikusitakoa bete beharko dutenak, eta bereziki 11.3 artikuluan ezarritakoa.
4. Eskiera aurkezteko unean Espainian legez eratuta dauden pertsona juridikoak, eta beste erakunde batzuk, nortasun juridikoa izanik edo izan gabe, A, B, C, D, E, F, G, J, R edo W letraz hasten den identifikazio fiskaleko zenbakia dutenak. V letraz hasten den IFZ duten Eraldaketarako Nekazaritza Sozietateak edo Poligonoak Kontserbatzeko Erakundeak ere hautagarriak izango dira.

Onuradunak izango dira, halaber, aurreko paragrafoko baldintzak betetzeaz gainera, honako hauek ere betetzen dituzten pertsona juridiko guztiak:

- Helbide fiskala EAEn ez izan arren, Autonomia Erkidego horretan (i) beren jarduera garatzen dutenak, (ii) egoitza bat dutenak, eta (iii) beren plantillaren zati bat Autonomia Erkidego horretan dutenak; hori guztia, gutxienez, laguntza-deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (aurrerantzean, "EHAA") argitaratzen den egunaren aurreko bi urteez geroztik.
  - Helbide fiskala EAEn ez duten arren, eta aurreko paragrafoan deskribatutako baldintzak betetzen ez badituzte ere, inbertsio subentzionario bat egikaritzen dutenak 2. pizgarri-programan –Ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegitura ezartzea– deskribatutakoari jarraikiz, betiere inbertsio horrek eragina badu energia-kontsumoan edo petrolioaren mendekotasunaren murrizketan EAeko lurraldearen barruan.
5. Toki-erakundeak, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 3. artikuluan arabera, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 2.2 artikulua erreferentzia egiten dien administrazio publikoen arteko edozeinetako sektore publiko instituzionala, betiere merkatuan ondasunak eta zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoak gauzatzen ez badituzte, kasu horretan aurreko 4. epigrafean sartuko direlako.

2.2. Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategiena onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren (aurrerantzean "1/1997 Legegintzako Dekretua") Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 13. artikuluan eta 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, honako pertsona fisiko hauek izan daitezke laguntzaren azken hartzaileak: dirulaguntza emateko eskatzen diren egoeran daudenak, edo oinarri hauetan eta dirulaguntzen deialdian aurreikusten diren baldintzak betetzen dituztenak.

Pertsonak edo erakundeek, azken hartzaileen izateari begira, debekurik ez dutela justifikatzeko honako era honetan egin daiteke: Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 13.7 artikuluan eta Legegintzako 1/1997 Dekretuaren 50.6 artikuluan aurreikusten diren prozeduren bitartez.

2.3. Laguntzaren azken hartzailetzat hartzeko ezinbesteko baldintza izango da, dirulaguntza eman aurretik zein dirulaguntza emanez gero egoera edo baldintza horretan jarraitu ahal izateko, zergen inguruko betebeharrak eguneratuak edukitzea eta, hala badagokio, baita dirulaguntzak itzuli behar izateagatik betebeharren ordainketak ere.

2.4. Honako hauek ezin izango dira laguntzen azken hartzaile izan:

- a) 1. Pizgarri-programari jarraikiz (Ibilgailu elektrikoen erosketa sustatzea) garatutako jarduketetarako, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren tarifen lehen ataleko 615.1 edo 654.1 epigrafea duten kontzesionarioak edo saltokiak, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren tarifak eta instrukzioa onartzen dituen irailaren 28ko Legegintzako 1175/1990 Errege Dekretuak ezarritakoa betez.
- b) Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bitartez onartutako azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamenduko 21. artikuluan aurreikusitako zirkunstantzietako bat betetzen ez dutenak.
- c) 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.5 artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 13.2 eta 13.3 artikuluan adierazten diren egoeraren batean dauden eskatzaileak, baita zigortuta daudenak, administratiboki edo penalki, dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galarazita dutenak, edo debekuren bat indarrean dutenak eta horretarako gaitasunik gabe uzten dietenak ere.
- d) Krisi-egoeran dauden enpresak, EB 651/2014 Erregelamenduan eta krisian dauden enpresa ez-finantzarioen salbamendu eta berregituraketarako estatu-laguntzei buruzko Europar Batasuneko jarraibideetan xede horretarako egiten den definizioari jarraikiz (Batzordearen 2014/C 249/1 Komunikazioa, 2014ko uztailaren 31koa).
- e) Aurretik eman zaien edozein laguntzaren edo dirulaguntzaren gain berreskuratze-agindu baten mende dauden enpresak, legez kontrakoa eta barne-merkatuarekin bateraezina den laguntza gisa deklaratu delako, edo emakidan esleituta dituzten betebeharrak edozein modutan bete ez dituztelako.
- f) Herralde Pobretuekiko Justizia eta Elkertasunerako Gutunaren abenduaren 28ko 14/2007 Legea betetzeko, sozietatearen xedetzat edo dedikaziotzat osorik edo zati batean armen produkzioa, merkaturatzea eta finantzaketa duten enpresek.

### 3. Aurrekontu-hornidura eta eskaerak aurkezteko epea.

Laguntza-programa honetara bideratutako hornidura ekonomikoa **16.378.574,63€**, da guztira, EEEren aurrekontuetan horretarako ezarritako kredituaren arabera, eta pizgarri-programa bakoitzerako honako zenbateko hauen arabera banatua:

1. *pizgarri-programa* - Ibilgailu elektrikoen erosketa sustatzea: 9.008.216,05 €
2. *pizgarri-programa* - Kargatze-azpiegiturak zabaltzen laguntzea: 7.370.358,58 €

Laguntza-programa honetarako laguntza-eskaerak aurkezteko epea 2021eko irailaren 28an hasiko da indarraldia amaitzen den arte, 2024ko uztailaren 31era arte, hain zuzen ere.

Aipatutako epea amaitutakoan ez da beste eskaerarik onartuko. Dena den, esleitutako aurrekontua agortzen bada eta betiere programaren indarraldia amaitu ez bada (2024ko uztailaren 31), eskaerak erregistratu ahalko dira behin-behieneko erreserba-zerrendan, eta sarrera-ordenari zorrotz jarraikiz artatuko dira, aurreikusitako ezespenez edo errebozazioak gertatzearen menpe, aurrekontua askatu ahalko luketenak, edo deialdian aurrekontu berri bat sartzen bada. Eskaera bat behin-behineko erreserba-zerrendara aurkezteak ez dio ezein eskubide sortuko eskatzaileari eskaera ebazten ez den arte.

Testuinguru horretan, pizgarri-programetako batean agortu gabeko aurrekontua beste programari berresleitzeko aukera izango da, eta, gaineratu ahalko dira, kasuan-kasuan, aurrekontuan bilduta egonik, **1.2 oinarrian** adierazitako zuzeneko inbertsioen finantzaketara bideratu ezin ahal izan diren gerakinak.

Aurrekontu erabilgarria agortu dela iragarriko da, EHAAn zein EEEn Interneteko helbidean: <http://www.eve.eus>.

Epeak zenbatzeko, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen (aurrerantzean “**39/2015 Legea**”) 30. artikuluan xedatutakoa egongo da indarrean.

#### **4. Jarduketa subentzionagarriak eta laguntzen zenbatekoa**

**4.1.** Jarraian zerrendatzen direnak jarduketa subentzionagarriak izango dira, EAEn egikarituak eta betiere jarduketa horrek eragina badu energia-konsumoaren gain edo EAEn lurraldearen barruan petrolioarekiko mendekotasuna murriztearen gain. I. ERANSKINEAN ezarritako betekizunak bete beharko dituzte, eta bi pizgarri-programei dagozkie.

a) *1. pizgarri-programa – Ibilgailu elektrikoaren erosketa sustatzeko programa:* Ibilgailu elektriko «entxufagarrien» eta erregai-pila bidezkoen erosketa.

b) *2. pizgarri-programa – Kargatze-azpiegiturak zabaltzen laguntzeko programa:* Ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegiturak ezartzea.

**4.2.** 2.1 oinarriko 1. epigrafean aipatutako azken hartzaileei eta 4. epigrafean barne hartutako enpresa txiki eta ertainei, betiere espresuki hori aukeratu badute kargatzeko azpiegitura zabaltzeko laguntza-programetan, 2013ko abenduaren 18ko Batzordearen 1407/2013 zenbakiko Erregelamenduan (EB), Europar Batasunaren Funtzionamendu Tratatu 107. eta 108. artikuluetan de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa (EBAO, 2013/12/24koa, L 352/1) aplikatzekoak izan daitezkeen ezarritako betekizunak eta mugak ezarriko zaizkie espezifikoki laguntzak emateko, laguntza-programa horiek indarrean dauden bitartean, erregelamenduetan izan ditzakeen etorkizuneko aldaketak kontuan izanda, alde batera utzi gabe horri dagokionez ezarri ahalko litzatekeen erregimen iragankorra eta aplikatzekoak izan litezkeen zuzenbide nazionalen zein Europar Batasuneko gainerako xedapenak, bereziki Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa zein Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko eta kudeatzeko eremuan onartzen diren xedapenei dagokienez.

Apartatu honetan zehaztutako minimis erregimenaren eraginpeko ebazpen honek onartutako pizgarri-programei jarraikiz jarduketa subentzionagarrien onarpena hautatzeko aldia, 2021eko apirilaren 10etik deialdien indarraldia amaitu arte izango da, dirulaguntzak justifikatu eta egikaritzeko aldia edozein izanik ere.

**4.3.** 2.1 oinarriko 4. epigrafean aipatutako azken hartzaileentzat, aurreko 4.2 idatz-zatian bildutakoak izan ezik, baita 5. epigrafean bilduta egonik merkatuan ondasunak eta/edo

zerbitzuak eskaintzen dituztenentzat, 651/2014 (EB) Erregelamendua, Itunaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz barne-merkatuarekin bateragarriak diren laguntza-kategoria batzuk deklaratu dituen, eta 2022/2473 (EB) Erregelamendua, Tratatuaren 107. artikulua arabera, arrantzako eta akuikulturako produktuak ekoizten, eraldatzen eta merkaturatzen dituzten enpresei laguntzeko zenbait kategoria deklaratu dituen. 167, 2023ko ekainaren 30eko) aldatzen duen Batzordearen ekainaren 23ko 2023/1315 zenbakiko Erregelamenduan ezarritako betekizun eta mugen eraginpean egongo da laguntzen emakida, eta ingurumena babesteko laguntzen kategoriarik dagokion salbuespena aplikatuko da (7. atala), 36 bis eta 36 ter artikulua, aplikatzekoak izan litezkeen Europar Batasuneko zuzenbideko gainerako xedapenak alde batera utzi gabe, bereziki Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa zein Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritu eta kudeatzearen eremuan onartzen diren xedapenei dagokienez.

Hori horrela, kategoria honetako (7. atala) laguntzei eskaini ahaliko zaien urteko batez besteko aurrekontua bereizitako jarduketa edo pizgarri-programa edo erregimen bakoitzerako, 1. apartatuan zerrendatutakoak, ezin izango du 150 milioi euroko muga gainditu, eta III. eranskinean ezartzen den azken hartzaile eta deialdi bakoitzeko laguntza-muga bat ezarriko da.

Apartatu honetan aurreikusitako azken hartzaileentzat, eta ebazpen honek onartutako pizgarri-programen eragin sustagarriari eusteko xedearekin, dagokion laguntza-eskaera erregistratzen duten egunetik aurrera egin behar diren jarduketa subentzionagarriak baino ezin izango dira onartu, kasu honetan ere, haiek justifikatzeko eta egikaritzeko aldia edozein izanik ere.

**4.4. 2.1 Oinarrian aipatutako gainerako azken hartzaileentzat**, azken hartzaile bakoitzeko eta inbertsio-proiektu edo jarduketa subentzionagarri bakoitzeko eman behar diren laguntzen zenbatekoen mugak ezarri dira III. ERANSKINEAN, eta horiek onartzeko aldi hautagarria, 2021eko apirilaren 10etik deialdien indarraldia amaitu arte izango da, dirulaguntzak justifikatu eta egikaritzeko aldia edozein izanik ere.

**4.5. Laguntzen zenbatekoa** Oinarri hauetako III. ERANSKINEAN bildu da pizgarri-programa eta jarduketa subentzionagarri tipologia bakoitzerako, baita azken hartzaile mota bakoitzerako ere.

**4.6.** Laguntzaren azken hartzailearen izaera eta mota eta eskaeraren eraginpeko pizgarri-programa edozein izanik ere, BEZa edo beste edozein zerga ez da inoiz jarduketaren kostu subentzionagarritzat joko.

## **5. Dirulaguntzetarako muga orokorrak**

### **5.1. Laguntzen zenbatekoaren muga orokorra laguntzaren azken hartzailearen arabera**

4. Oinarrian eta III. ERANSKINEAN jasotakoaren arabera.

### **5.2. Europako araudi aplikagarria**

Laguntzaren azken hartzailearen izaeraren arabera, programa honen babesean ematen diren pizgarriei 651/2014 Erregelamenduan edo *minimis* Erregelamenduan ezarritako betekizunak eta mugak ezarriko zaizkie, aplikatzekoak izan litezkeen Europar Batasuneko zuzenbideko gainerako xedapenei kalterik egin gabe, bereziki Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa zein Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritu eta kudeatzearen eremuan onartzen diren xedapenei dagokienez.

### **5.3. Bateragarritasun-erregimena beste laguntza batzuekin**

Ematen diren pizgarri-programak bateraezinak izango dira estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko erakundeetako edozein administrazio edo erakunde publikok zein pribatuk helburu berberarekin emandako beste edozein dirulaguntza edo laguntzarekin.

#### 5.4. Subentzionatutako jarduerak hirugarrenekin azpikontratatzea edo kontratatzea

- a) Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 29. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko Erregelamendu Orokorraren 68. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, azken hartzaile batek azpikontratatu duela ulertuko da honako egoera hau gertatuz gero: dirulaguntzaren xedea den jardueraren zati baten edo jarduera osoaren egikaritzapena hirugarren batekin hitzartzen bada. Diruz lagunduko den jarduera aurrera eramateko azken hartzaileak berak egingo dituen gastuen kontratazioa kontzeptu horretatik kanpo geratuko da.

Horri dagokionez, hirugarrenen azpikontratazioa edo kontratazioa subentzionatutako jarduketaren zenbatekoaren % 100 ere izan daiteke, eta subentzionatutako jarduketan hirugarrenen azpikontratazio edo kontrataziorako, 29. eta 68. artikuluko horietan jasotako gainerako aurreikuspenak aplikatuko dira.

- b) Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 31.3 artikuluan xedatutakoa betez, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen (SPKL) aplikazio-araudia bazter utzi gabe, eskatzailearen izaera juridikoaren arabera, Kontratazio Publikoaz diharduen araudian ezarritako zenbatekoak gainditzen badituzte gastu lagungarriaren zenbatekoak, kontratu txikiari dagokionez (15.000 euro, BEZik gabe, zerbitzu eta horniduretarako, eta 40.000 euro, BEZik gabe, obretarako), azken hartzaileak gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko dizkie hornitzaile ezberdinei, obrarako konpromisoaren kontratazioa gauzatu, zerbitzua egin edo ondasuna eman aurretik, salbu eta, haren ezaugarri bereziengatik, merkatuan nahiko erakunderik ez baldin bada haiek gauzatu, eman edo hornitzeko, edo salbu eta dirulaguntza eman baino lehen egiten baldin bada gastua.

Aurkeztuko diren eskaintzen arteko aukeraketa, funtsean, efizientzia- eta ekonomia-irizpideak kontuan hartuta egingo da, baita aukeraketa espreski justifikatuta geratzea ere, baldin eta ekonomikoki onuragarria den proposamena ez denean.

#### 6. Tramitatzeko kudeaketa eta prozedura

39/2015 Legearen 14. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik eta Administrazio Elektronikaz diharduen otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren arabera (aurrerantzean "**21/2012 Dekretua**"), laguntzen programa honi lotutako espedienteen tramitazio guztiak (eskaerak, errekerimenduak, jakinarazpenak, zuzenketak eta gainerako kudeaketak), Tramitagune Eusko Jaurlaritzako tramitazio elektronikoa aplikatuz egingo dira, Euskadi.eus webgunean eta EEren ([www.eve.eus](http://www.eve.eus)) webgunean eskuragarri dagoena, hori guztia, pertsona fisikoaren kasuan 39/2015 Legearen 14.1 artikuluan aurreikusitakoari kalterik egin gabe.

Dirulaguntzak eskatu eta tramitatzearekin zerikusia duen edozein tramite edo dokumentu elektronikoki aurkezten bada, sinadura elektronikoa aitortu bat eduki beharko du, 21/2012 Dekretuaren 11. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Eskaera osatugabea, akatsekin badago, edo oinarri hauetan eskatzen dena bete gabe, hamar (10) egun balioduneko epea emango zaio interesdunari zuzentzeko edo eskatzen zaizkion dokumentuak aurkezteko, horretarako bidaliko zaion jakinarazpena jasotzen duen egunetik kontatzen hasita, eta hori egin ezean, eskaera bertan behera utziko zaio, aurretiaz emango den ebazpen baten bidez, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideaz diharduen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan arabera.



Pertsona juridiko batek eskaera aurrez aurre edo presentzialki aurkeztuz gero, ezarritako bide elektronikotik kanpo, interesdunari eskatuko zaio zuzentzeko, eta era elektronikoan aurkezteko. Horri dagokionez, eskaeraren aurkezpen-data edo -eguntzat joko da zuzenketa egiten den eguna.

## 7. Laguntza-eskaera eta hautatzeko aldia

Oinarri hauen arabera, dirulaguntzaren eskaeraren inprimakia eta berarekin batera bidali behar den dokumentazioa, **6. oinarrian** aipatutako aplikazio informatikoaren bidez bidali beharko da, **3. oinarrian** adierazten den epearen barruan.

Eskaeren onarpena hautatzeko aldiaren xedeetarako:

- a. **2.1 Oinarriko 1., 2., 3. eta 5. epigrafeetan definitutako azken hartzaileentzat, azken epigrafearen kasuan, merkatuan ondasun eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikorik deklaratu ez badute, I. ERANSKINEAN** jasotako jarduketa subentzionagarriak hartuko dira aintzat baldin eta horien inbertsioa 2021eko apirilaren 10etik aurrera hasi bada, eta, hala badagokio, jarduketa horiek egikaritu eta justifikatzeko behar den aldia edozein izanik ere.
- b. **2.1 Oinarriko 4. epigrafean bildutako azken erabiltzaileentzat, baita, 5. epigrafean bilduta egonik, merkatuan ondasun eta/edo zerbitzuak eskaintzen dituztenentzat ere,** jarduketan onarpena hautatzeko aldia laguntza-eskaera erregistratzen den egunean hasiko da, eta, hala badagokio, jarduketa horiek egikaritu eta justifikatzeko behar den aldia edozein izanik ere.

Eskaeraren aurkezpen-ordenari zorrotz jarraikiz erantzungo zaie eskaerei, laguntza-eskaerak ebazteko ordenari dagokionez **8.1 oinarriaren** lehenen paragrafoan adierazitakoa bazter utzi gabe, funtsak agortzen diren arte. Aurrekontua agortzen ez bada, eta betiere Programaren indarraldia amaitu ez bada, eskaerak behin-behineko erreserbako zerrendan erregistratzeko aukera izango da, **3. Oinarrian** adierazitakoari jarraikiz.

Laguntza-eskaerak Oinarri hauetako **II. ERANSKINEAN** adierazitako dokumentazio guztiarekin batera joango dira, laguntzaren azken hartzailearen tipologiaren eta diruz lagundu nahi den jarduketaren arabera.

EEEk eskatzaileari eskatu ahalko dio laguntza-eskaera behar bezala aztertzeko beharrezkotzat jotzen den informazio eta dokumentazio osagarria.

## 8. Ebazpena, komunikazioa eta publizitatea

**8.1.** Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko presako neurriak onartzen dituen abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuko 62.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera (hemendik aurrera, "36/2020 Errege Lege Dekretua"), eta kontuan hartuta aurreikusitako laguntzak bideratzen direla beste proposamen batzuekiko konparaziozko balioespenaren beharrik ez duten jarduketa edo egoera zehatzak finantzatzera, laguntza-eskaerak ebazteko dira konkurrentzia jarraituko prozedura baten bitartez, behin egoera edo jarduketa subentzionagarriaren konkurrentzia egiaztatuta eta eskatutako gainerako betekizunak bete ondoren, deialdietan esleitutako aurrekontu-kreditua agortu arte. Horrela, eskabideak aurkeztu diren hurrenkera zorrotzaren arabera aztertu eta izapidetuko dira.

**8.2.** EEE Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiak ebazpena eman eta jakinarazpena eskatzaileari helaraziko dio sei (6) hilabeteko gehieneko epean, dirulaguntza-eskaera aurkeztu den egunetik kontatzen hasita (39/2015 Legearen 21.2 artikulua). Epe hori igaro

ondoren, eta ebazpen zehatzik jasotzen ez badu, gaitzetsizat hartuko da eskaera. Hori guztia, 3. oinarrian erreserba-zerrendan dauden eskabideentzat aurreikusitakoa alde batera utzi gabe.

Ebazpenean honako hauek azalduko dira: (i) dirulaguntzaren xedea den jarduketa, (ii) haren zenbatekoa (kopuru gordina, azken hartzailearen izaeraren ondoriozko zerga-betebeharrei utzi gabe), (iii) funtsen jatorria, (iv) interesekoak izan daitezkeen beste alderdi batzuk, eta (iv) eskaerari ezezkua emanez gero, ezezkoaren arrazoiak.

Ebazpen horren kontra, prozedura administratiboari amaiera ematen diona, eskatzaileek hautazko birjartze-errekurtsoa jar dezakete EEE Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren aurrean hilabeteko epearen barruan, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, edo bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Bilbon dagokion epaitegian bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Hori guztia, 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluek diotena betez eta uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluekin bat etorritik; hain zuzen ere, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duena (aurrerantzean, “**29/1998 Legea**”).

**8.3.** Dirulaguntza emateko orduan kontuan hartutako baldintzak aldatuz gero, betiere onuraduna izateko dirulaguntzen araudiek ezartzen dituzten gutxieneko betekizunak babestuz, dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea ekar dezake, dirulaguntza arautzearen inguruko legeriak xedatzen duenarekin bat etorritik (Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 19.4 artikulua eta 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49.2 artikulua).

**8.4.** Azkenik, 19/2013 Legeak dioenarekin bat etorritik, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa (aurrerantzean, «**19/2013 Legea**») eta Dirulaguntzei buruzko Erregelamendu Orokorra, laguntza programa hau amaitu eta gero, EEEK bere Gardentasun Atarian eta EHAAn argitaratuko ditu emango diren dirulaguntzak; baita legeak eskatzen dituen datuak ere azalduko dira bertan.

## **9. Inbertsioa egin izana eta laguntzak ordaindu izana justifikatzea**

**9.1.** Gehienez hamabi (12) hilabeteko epean laguntza emateko ebazpena jakinarazten den egunaz geroztik, laguntzen azken hartzaileek justifikatu beharko dute laguntzaren xede den jarduketa gauzatu, fakturatu eta ordaindu dela.

**9.2.** Azken hartzaileek laguntzaren justifikazioa EEEen egin behar dute, elektronikoki, **6. oinarrian** adierazitako aplikazio informatikoaren bidez, pertsona fisikoen kasurako 39/2015 Legearen 14.1 artikuluan aurreikusitakoa bazter utzi gabe.

**9.3.** Laguntzen azken hartzaileak aplikatzekoa den oinarri hauetako **II. ERANSKINEAN** adierazitako dokumentazio guztia aurkeztu beharko du, eta, espezifikoki, laguntzaren azken hartzailearen eta egikaritu den jardueraren arabera adierazitakoa. Horri dagokionez, espresuki adierazten da (i) ez dela onartuko justifikazio-kontua auditorearen txostenarekin aurkeztuta onartzea, (ii) ez dela dokumentazioa aurkezteko inolako salbuespenik ezarriko, (iii) eta ez dagokiola ezein aurrerakinik ematea 737/2020 EDan adierazitakoari jarraikiz.

**9.4.** Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete direla jasotzen duten ziurtagirien akreditazioa automatikoki eta ofizios egiaztatuko du EEEK, Nafarroako Foru Aldundiari eta Estatuko Zerga Agentziari buruzkoak izan ezik. Dena den, baimen inplizitu hori espresuki ukatu ahal izango du eskatzaileak, eta kasu horretan dagokion ziurtagiria edo eskatutako dokumentua aurkeztu beharko du, eta hori guztia 39/2015 Legearen 28. artikuluen 2. paragrafoan xedatutakoari jarraikiz.

- 9.5. Laguntzaren azken hartzaileak aurkeztu beharko du dokumentazioa, edo haren legezko ordezkariak, egintza bakarrean eta osorik. Horrela, aurkeztutako justifikazio-dokumentazioa osatu gabea bada, akastuna bada, edo postaz edo presentzialki aurkezten bada, laguntzaren azken hartzaileari hamar (10) egun balioduneko epea emango zaio zuzentzeko dagokion eskaera-idazkiaren bidez, laguntzaren azken hartzaileak zuzentze-jakinazpena jasotzen duenetik zenbatzen hasita (39/2015 Legearen 68. artikulua).
- 9.6. EEEK ez du zabalduko edo luzatuko eskatutako dokumentazioa osorik entregatzeko epea eta justifikazioa idatz-zati honetan ezarritako epean ez aurkezteak emandako laguntza errebotatzea eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean ezarritako gainerako erantzukizunak ekarriko ditu berekin.
- 9.7. Eskatutako dokumentazioa jasotakoan dokumentazioa aztertu egingo da. Aurkeztutako dokumentazioaren balioespena positiboa bada, EEEK laguntza ordaintzeari ekingo zaio, funtsen jatorriaren erreferentzia espresua eginda, Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministerioa eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana eta Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa aipatuz, horri dagokionez ezar daitekeenari jarraikiz.

Aurkeztutako justifikazio-dokumentazioa kontrastatutakoan, ikusten bada, inbertsioa gauzatu eta Programa honen helburua bete arren, dirulaguntzaren azken zenbatekoak hasieran emandakoa baino txikiagoa izan behar duela, laguntzaren errebotazio partzialeko espediente bati emango zaio hasiera.

Aldiz, laguntzaren azken hartzaileak:

- Justifikazio-betebeharra betetzen ez badu **9. Oinarrian** aurreikusitakoari jarraikiz.
- Oinarri hauetan eta/edo dirulaguntzen alorrean ezarritako araudian bildutako ez bestelako edozein baldintza betetzen ez badu,

Laguntzaren erabateko errebotazioko espediente bati emango dio hasiera EEEK.

Laguntzaren bi errebotazio-kasuetan, laguntza kobratzeko eskubidearen galera deklaratu da, Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduaren 89. artikuluan ezarritakoari jarraikiz eta horretarako Dirulaguntzei buruzko Legearen 42. artikuluan aurreikusitako prozeduraren bidez.

- 9.8. Laguntzaren azken erabiltzaileak horretarako adierazitako banku-kontuan ordainduko du EEEK dirulaguntza, identifikatutako proiektua dagokion laguntza-eskaeran amaitu ondoren, lortu nahi ziren helburuen betetze-maila eta egindako gastuak egiaztatzeko aukera emango duen dokumentazioa EEEri aurkeztu ondoren.
- 9.9. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Instituzionalak, bere erakunde autonomiadunek edota EEEK emandako izaera bereko dirulaguntzak itzultzeko dauzkaten elkarteek edo erakundeek ezin izango dute laguntzen programa honek ematen duen dirulaguntzarik jaso. Horrelako kasuetan, aztertu egingo da itzuli beharreko dirulaguntza zer egoeratan dagoen, borondatezko aldian edo bide betearazlean.

Azken erabiltzaileek dirulaguntzen itzulketen betebeharren ordainketak eginak dituztela ulertzeko, haxe izango da irizpidea: dirulaguntza horiek emandako administrazioarekiko zorrik ez izatea epealdi betearazlean dirulaguntzak itzultzeari dagokionez, edo azken erabiltzaileei zein elkarte laguntzaileei premiamendu-bidea ezarri edo aurrera eramaterik ez dagoen kasuetan, borondatezko aldian zorrik ez izatea.

Era berean, onuradunek dirulaguntzen itzulketen betebeharren ordainketak eginak dituztela ulertuko da zor horiek geroratuta edo zatikatuta badaude, edo bertan behera uzteko erabaki

bada, itzultzeko dagokion ebazpena aurkaratuz gero (Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduko 21. artikulua).

## **10. Laguntzaren xede den jarduketaren eta espedientearen dokumentuak egiaztatzea**

Dirulaguntza emateko ebazpena eman ondoren, eta dirulaguntzaren xede den jarduketa benetan gauzatu dela eta Oinarri hauetara eta aipatutako gainerako araudira egokitzen dela egiaztatzeko xedearekin, EEE Energiaren Euskal Erakundeak subentzionatutako proiektuak egiaztatu ahalko ditu, egindako inbertsioen zenbait argazki adierazgarri egitea barne. Nolanahi ere den, EEEK beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio guztia eskatu ahal izango du; betiere, dirulaguntzen erabilera egoki bat egin dela ziurtatu nahian.

Dirulaguntza jasotako jarduketaren in situ egiaztatzea egingo zaien azken hartzaileei aldeztu aurretik idazki bat bidaliko zaie, haren berri emateko EEEren aldetik. Jakinarazpena jasoko dutenek egiaztatze hori erraztu beharko dute.

Jakinarazpena bidali ondorengo bi (2) asteren barruan, EEEK onuradunari inbertsioen egiaztatzea egingo duela jakinarazi ondoren, adierazitako inbertsioa burutu dela egiaztatzeko asmoz, ezin bada ikuskapena egin, EEEekin zerikusia ez duten arrazoiak tarteko, idazki bidez jakinaraziko zaio azken hartzaileari hamabost (15) egun balioduneko epea izango duela beste hitzordu bat egiteko, inbertsioen egiaztatzea egin ahal izateko. Hori egin ezean, EEEK dirulaguntzaren zenbatekoa erabat errebotatzeko espedientea abiaraziko du.

Egiaztatzean hartutako informazioa eskaeran aurkeztu den dokumentazioarekin kontrastatu ondoren, eta hasieran emandako dirulaguntzaren kopuruak txikiagoa izan behar duela, edo ez dagokiola dirulaguntzarik jasotzea ondorioztatzen bada, kasuan-kasuan, EEEK dirulaguntza partzialki edo erabat errebotatzeko espedientea egingo du, eta, hala badagokio, zati bat edo kopuru osoa itzultzeko eskatuko du, legezko beste bide batzuk hartzeko eta zigorrak aplikatzeko eskubideari uko egin gabe.

## **11. Laguntzen azken hartzaileen betebeharrak**

Deialdi honen xede den laguntzen azken hartzaileek honako betebeharrak bete beharko dituzte betiere:

- a. Dirulaguntzei buruzko Legearen 14. eta 46. artikuluetan eta 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.2 artikuluan xedatutakoak.
- b. Emandako dirulaguntza onartzea. Dirulaguntza eman zaiola jakinarazten dion agiria jaso eta hamabost (15) eguneko epean onuradunak berriaz eta idazki bidez uko egiten ez badio, onartu egin duela ulertuko da, dirulaguntzen deialdi honetan zein ebazpenean ezartzen diren baldintza ekonomikoei eta gainerakoei dagokienez, baita laguntzen deialdi honi dagokionez ere.
- c. Dirulaguntza zertarako eman zaion, horretarako erabiltzea.
- d. Kontrol Ekonomikoko Bulegoari, Kontu Publikoen Euskal Auzitegiari, Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuari eta Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministerioari ematea eskatu ahal dioten informazioa; betiere, dirulaguntza hauek kontrolatzeko dituzten zereginak behar bezala egin ahal izateko, dirulaguntzen deialdi honen kargura eta, espezifikoki EEEK era berean nahitaez Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuari igorri behar diona 266/2021 EDaren IV. ERANSKINEAN aurreikusitakoa betetzeko.
- e. Xede bererako dirulaguntzen edo laguntzen, diru-sarreraren edo baliabideen eskaera jakinaraztea, beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batek emandakoak badira.

- f. Jarduketak aplikatzekoak zaizkion erregelamendu eta araudiak betez egikaritzea, eta jarduketaren osagaiak organismo eskudunaren dagokion homologazioa izan beharko dute. Horrela, laguntzaren azken erabiltzaileak bere gain hartzen du dirulaguntzaren xede den proiektua erabat egokitzen zaiola indarreko araudi aplikagarriari, teknikoari edo urbanistikoari, edo beste edozein izaeratakoari.
- g. Onuradunak diruz lagundutako ondasunaren titularra izan beharko du, eta dirulaguntza eman zitzaionean kontuan hartu zen xede jakin horretarako erabili beharko du, gutxienez:
- Ibilgailuen kasurako, 2 urtez. Renting jarduketetan, sinatutako kontratuak gutxienez 2 urteko iraupena izan beharko du.
  - Kargatze-puntuen kasurako, bi urteko iraupena. Sarbide publikoko kargatzearen kasuan, puntua gutxienez bost urtez indarrean egongo dela bermatu beharko da.

Laguntzaren azken hartzaileak laguntzaren xede den ondasuna besterentzen badu, aldez aurretik ezarritako denbora-tarteak igaro baino lehen:

- Egiaztatu beharko du eta EEEren aurrean deklaratu erosle berriak betetzen dituela oinarri hauetan laguntzaren azken hartzaile izateko aurreikusitako betekizun guztiak.
- Salerosketaren kontratu-dokumentuan honako hauek adierazi beharko ditu espresuki:
  - Ondasun horrek (ibilgailua edo kargatzeko azpiegitura) Mugikortasun elektrikoari lotutako pizgarri-programaren laguntza jaso duela, Europako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan (MOVES III programa).
  - Erosle berriak laguntzaren azken hartzailearen posizio juridikoa bereganatzen duela, gutxienez, aipatutako epea bete arte.
- EEEri egindako salerosketaren berri eman beharko dio, gehienez hiru (3) hilabeteko epean formalizazioaz geroztik.

Laguntzaren azken hartzaileak betetzen ez baditu besterentze horri dagozkion eskakizunak, jasotako laguntza itzuli beharko du, osoa edo haren zati bat, dagokionaren arabera.

- h. Horrela, dirulaguntzaren azken erabiltzaileak argitalpenetan, hedatze-jardueretan, webguneetan eta, oro har, edozein hedabideetan araututako laguntzen xede den jarduketari buruz egiten duen edozein erreferentziak kasuan-kasuan Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuaren webgunean erabilgarri egongo den Programaren Irudi Eskuliburuan dauden betekizunak bete beharko ditu (<https://www.idae.es/ayudas-y-financiacion/para-movilidad-y-vehiculos/programa-moves-iii>), non Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministerioa eta MOVES III Mugikortasun elektrikoaren sustatzeko pizgarri-plana azalduko diren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren eta Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren esparruan, hori guztia horri dagokionez ezarritakoa eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 18.4 artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko Erregelamendu Orokorraren 31. artikuluan aurreikusitakoa betez. Testuinguru horretan, Europar Batasunaren finantzaketaren hartzaileek finantzaketa hori nondik datorren adierazi eta nabarmendu beharko dute, bereziki jarduketa subentzionaerriak eta haien emaitzak sustatzen dituztenean, hainbat eta hainbat erabiltzaileen eskura benetako eta neurrizko informazio koherentea jarritz, komunikabideak eta publikoa barne. Onuradunek, osagarri gisa, betebeharrak hori bete beharko dute, eta komunikazio-ekintza guztietan adierazi beharko dute, edozein formatutan, jarduketa diruz lagundu dela EEEK deitutako MOVES III laguntza-programaren bidez.

- i. EEEK hala eskatzen baldin badio, azken erabiltzaileak konpromisoa hartzen du erregistratutako energia-emaitzen bilakaeraren berri emateko, baita haien dibulgazio lanak egiteko ere, lau (4) urteko epean, EEEK dirulaguntza ematen duen egunetik kontatzen hasita, aldez aurretik baterako akordioa ezarri ondoren.
- j. Dirulaguntza ematearekin zerikusia duen edozein aldaketa objektibo zein subjektiboren berri ematea EEEri, baita laguntzaren xedea ikuskatzeko eginkizunak betez eskatzen dion edozein informazioren berri ere.

## 12. Ez-betetzeak eta dirua itzultzea

Laguntzaren azken hartzaileak jasotako dirulaguntza osoaren edo zati baten itzultzeari ekingo zaio eta dagozkion berandutze-interesak eskatuko zaizkio (diruaren legezko interesari % 25 gehituko zaio, Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legeak beste kopuru bat esaten ez badu), dirulaguntza ordaintzen zaion unetik edo egunetik itzulketa egiteko erabakia hartzen den data edo egunera arte, Oinarri hauetan, 266/2021 Errege Dekretuan eta Dirulaguntzei buruzko Legearen 37. artikuluan xedatutakoa betez. Itzulketa partzialki egin behar den kasuetan, aipatutako Dirulaguntzei buruzko Legearen 37.2 artikuluan xedatutako graduazio-irizpideak hartuko dira kontuan.

Deialdi edo programa honetan ezarritako eskakizunak eta **14. oinarrian** aurreikusitako gainerako arau aplikagarriak edo dirulaguntza emateko ebazpenean jarritako baldintzak bete ezean, eta ez-betetze espedientea ireki ondoren, dirulaguntzaren errebokazio totala edo partziala eragingo du horrek eta dirua itzuli egin behar den litzaioke EEEri, berandutze-interesekin batera. Hori guztia, honako legeriak xedatutakoa betez: 1/1997 Legegintzako Dekretuan xedatutakoari jarraikiz eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren II. Titulua, EAEko Aurrekontu Orokorren kontura emandako dirulaguntzen bermeei eta itzulketei buruzko araudi orokorra arautzen duena, eta kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete behar dituzten eskakizunak, araubidea eta betebeharrak finkatzen dituena. Nolanahi ere, horrek ez du salbuesten bestelako zehapen eta lege-egintzetatik.

Errebokatzeko espedienteak hasarazteko eta ebazteko eskumena, eta, hala dagokionean, dirulaguntza partzialki edo osorik itzularazteko, EEEko zuzendari nagusiak du.

## 13. Informazio-klausula eskatzaileei

Datuen babesari buruzko informazioa (Datuak babesteari buruzko EB 2016/679 Erregelamendua betetzeko)	
<b>Tratamenduaren arduraduna</b>	ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA (EEE) IFZ: Q5150001E Helbidea: Urkixo zumarkalea, 36, 1. solairua, 48011, Bilbo (Bizkaia) tel.: 94.403.56.00 harremana DPO: <a href="mailto:dpd@eve.eus">dpd@eve.eus</a>
<b>Helburua</b>	- Zure dirulaguntza-eskaera aztertzea eta kudeatzea eta, kasuan-kasuan, laguntza ematearen ondorioz ezartzen den erlazioaren egikaritzapena eta kontrola. - Estatistika-xedeekin tratatu ahalko dira datuak.
<b>Tratamendua eta kontserbazioa legitimatzea</b>	- Tratamendua ezinbestekoa da guztion intereserako edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak gauzatzeko egindako zeregin bat betetzeko. - Informazioa gordetzea: eskaera aztertze epean eta aplikatzekoak zaizkion legezko epeetan. Laguntza emanez gero, emateko espedientearen zati izango dira datuak eta gorde egingo dira aktibo gordetzen den bitartean eta, ondoren, aplikatzekoak zaizkion legezko epeetan.

Datuen babesari buruzko informazioa (Datuen babesteari buruzko EB 2016/679 Erregelamendua betetzeko)	
<b>Emakiden hartzaileak</b>	Kontrol-arloko eta kontrol-alorrean eskumena duten erakunde eta autoritate autonomiko, lokal eta estatalak, edo Europar Batasunekoak. Zehazki, Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutua eta Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministerioa.
<b>Interesdunen eskubideak</b>	Interesdunek datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezabatzeko, eramangarritasunerako eskubideak eta tratamendua mugatzeko edo datuen aurka egiteko beren eskubideak egikaritu ditzakete EEERi idazki bat bidaliz, "datuak babesteko eskubideak egikaritzea" adieraziz, eskubide horiek dirulaguntzen arloko araudian aurreikusitakoaren arabera egikari daitezkeen neurrian.  Interesdunek Datuak Babesteko Euskal Agentziaren aurrean erreklamatzeko eskubidea dute <a href="http://www.avpd.eus">www.avpd.eus</a>
Dirulaguntzaren azken hartzaile orok konpromisoa hartzen du, bere dirulaguntza-eskaeran adierazitako proiektuaren kudeaketan eta, kasuan-kasuan, ondorengo egikaritzapenean inplikaturako edozein pertsona fisiko/juridikoren edozein datu pertsonal EEERi eman aurretik, arestian adierazitakoari buruz informatuko duela dagokion pertsona fisiko/juridiko, eta aplikatzeak izan daitezkeen beste edozein eskakizun bete EEERi datu pertsonak behar bezala lagatzeko.  Ordezkapena gauzatzeko, ordezkaria bere ordezkatuaren datu pertsonaletan sartuko da eta haren datu pertsonalak tratatuko ditu erabateko konfidentzialtasunez eta bidezkoak diren segurtasun-neurriak aplikatuz, prozedura kudeatzeko soil-soilik eta beste edozertarako erabiltzeko aukera debekatuta. Hirugarrenei ere ezin izango zaizkio jakinarazi, non eta haren ordezkatuak espresuki baimena eman ez dion. Konpromiso horiek mugagabeak dira, eta beraz, ordezkapena amaiturik ere jarraitzen dute indarrean. Ordezkariek segurtasun-arrakalen bat detektatzen badu EEERentzako datuen komunikazio-kanalean, EEERi jakinarazi beharko dio berehala.	

#### 14. Azken xedapenak

1. EEERen erabakiak izaera administratiboa du eta EEEK kudeatzen dituen dirulaguntzen jurisdikzio eskuduna, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa da.
2. *Mugikortasun elektrikoari lotutako pizgarri-programa, Europako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan (MOVES III programa) programa honen deialditik eratorritako laguntzen xede diren jarduketetatik lortutako irudiak erabiltzeko eskubidea du EEEK.*
3. Akatsak baldin badaude edo informaziorik eta dokumentaziorik ez badago laguntza emateko kudeaketan laguntzaren azken erabiltzailearen aldetik, eta horrek zuzenean eragina badu EEEK eman beharreko laguntzaren zenbatekoa zehazteko garaian, laguntzaren azken hartzailearen erantzukizun bakarra izango da. Horregatik, benetan egindako gastua handiagoa bada ere, laguntza emateko ebazpenean kontuan hartutakoa baino, hazkunde horrek ezein kasutan ere ezin izango du emakidaren zenbatekoa gorantz berrikustea ekarri.
4. Oinarri hauek aipatzen dituen dirulaguntzak honako hauetan xedatutakoaren mende daude:
  - 266/2021 Errege Dekretua, apirilaren 13koa, Europako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan mugikortasun elektrikoari lotutako pizgarri-programak (MOVES III) egikaritzeko autonomia-erkidegoei eta Ceutako eta Melillako hiriei laguntzak zuzenean ematea onartzen duena.
  - Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa;
  - 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legearen Erregelamendua onartzen duena.

Financiado por la Unión Europea - [NextGenerationUE](#)

- 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena.
- Batzordearen 2014ko ekainaren 26ko 651/2014 (EB) Erregelamendua, zeinaren bidez laguntza kategoria jakin batzuk merkatu erkidearekin bateragarriak direla adierazten den, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz.
- Batzordearen 1407/2013 Erregelamendua, 2013ko abenduaren 18koa, minimis laguntzei buruzko Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluen aplikazioari buruzkoa.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa;
- 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duena; eta
- 21/2012 Dekretua, otsailaren 21ekoa, Administrazio Elektronikoari buruzkoa.

I. ERANSKINA - JARDUKETA SUBENTZIONAGARRIEN BETEKIZUNAK  
II. ERANSKINA - DOKUMENTAZIOA  
III. ERANSKINA - LAGUNTZEN ZENBATEKOA



## I. ERANSKINA – JARDUKETA SUBENTZIONAGARRIEN BETEKIZUNAK

Jarduketa subentzionagarriek honako betekizun hauek bete behar dituzte:

### 1. pizgarri-programa: Ibilgailu elektriko «entxufagarrien» eta erregai-pila bidezkoen erosketa.

1. Dirulaguntza jaso dezakeen jarduera izango da leasing finantzarioaren bidez edo “renting” bidez (leasing operatiboa ere esaten zaio) ibilgailu berriak zuzenean edo finantzaketa-eragiketen bidez eskuratzea, Espainian laguntzaren azken hartzailearen izenean lehenengo aldiz matrikulatuta badaude, “renting” kasuetan izan ezik, horietan “renting” enpresaren izenean matrikulatuta egon baitaiteke.

Gainera, salerosketako faktura-data eta matrikulazio-data 2021eko apirilaren 9a baino geroagokoak izango dira 2.1 oinarrian zehaztutako azken hartzaileentzat, 1., 2., 3. eta 5. epigrafeetan zehaztutako hartzaileentzat, azken horiek merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzen dituen jarduera ekonomikoa deklaratu ez badute, baita administrazio autonomikoaren zuzeneko inbertsioetarako ere; eta, halaber, oinarritzko tipologiari dagokion programaren deialdian zehaztutako eskaera erregistratu eta ondorengo 5. epigrafeetan,

Ibilgailuaren prezioa 2021eko apirilaren 9a baino geroago edo eskaera erregistratu ondoren ordaindu beharko da, kontuan edo beste edozein kontzepturen pean ordaindu beharreko kopuruak barne, arestian aipatutako azken hartzailearen diferentziaren arabera.

M1, N1, L3e, L4e eta L5e kategorietako ibilgailu elektrikoak eta erregai-pilakoak erostea ere diruz lagundu ahal izango da. Ibilgailu horiek hamabi hilabete arteko antzintasuna izan beharko dute (erakustaldiko ibilgailuak), lehenengo matrikulaziotik hurrengo datetako lehenengora arte, erosketa-fakturaren datara edo eskaeraren erregistro-datara arte. Fabrikatzaile/taldearen azken hartzaileak egiten duen kontzesionarioak edo salmenta-puntuak izan beharko du horien titulartasuna. Kasu horretan, ibilgailua kontzesiodunak edo saltokiak erosi beharko dio fabrikatzaileari edo inportatzaileari ibilgailu berri gisa. Deialdi bakoitzean gehienez ere laurogeita hamar ibilgailu izango dira titulartasun bereko erakustaldiak egiteko, aurreko definizioaren arabera.

Bestalde, diruz lagundu ahal izango dira M1, N1, L3e, L4e eta L5e kategorietako ibilgailu elektrikoak eta erregai-pilakoak, hamabi hilabete arteko antzintasuna dutenak (ibilgailu erdiberriak), lehenengo matrikulaziotik hurrengo datetara, salerosketa-fakturaren datara edo eskaeraren erregistro-datara arte, eta horien lehen titulartasuna fabrikatzailearena berarena izan beharko du (CNAE 291 taldea) edo renting edo renting a car enpresa batena (CNAE 771 taldea). Kasu horretan, ibilgailua lehen aipatutako titularrek fabrikatzaileari edo inportatzaileari ibilgailu berri gisa erosi beharko diote. Deialdi bakoitzean, titulartasun bereko berrehun eta berrogeita hamar ibilgailu erdiberri ezartzen dira gehienez, aurreko definizioaren arabera.

Jarduketa programa edo tipologia honetan ez dira inola ere diruz lagunduko M2 edo M3 kategoriako autobusak eta N2 eta N3 kategoriako kamioi edo furgoiak. “...”.

2. Laguntzak jaso ditzaketen ibilgailuek honako kategorია hauetako batekoak izan beharko dute:

a) M1 turismoak: Gutxienez lau gurpileko ibilgailu motordunak, bidaiariak garraiatzeko diseinatuak eta fabrikatuak, gidariaren eserlekuaz gain, gehienez zortzi plaza dauzkatena.

- b) N1 kamioi arinak edo furgonetak: Ibilgailu motordunak, nagusiki salgaiak garraiatzeko sortu eta fabrikatu direnak, eta, teknikoki onargarria den gehieneko masa gisa, gehienez ere, 3,5 tona dutenak.
- c) L6e kuadriziklo arinak: Gehienez 350 kg-ko tara duten kuadriziklo arinak, baterien masa alde batera utzita, eraikuntzaren arabera, gehienez ere ordu bakoitzeko 45 km-ko abiadura, eta, gehienez ere, 4 kW-ko potentzia dutenak.
- d) L7e kuadriziklo astunak: Lau gurpileko ibilgailuak, gehienez ere 450 kg-ko abiada-masa dutenak (baterien pisua alde batera utzita) bidaiarien garraiorako, eta 600 kg-koa salgaien garraiorako, eta kuadriziklo arin gisa sailkatu ezin daitezkeenak.
- e) L3e, L4e, L5e motozikletak: Bi gurpileko ibilgailuak edo ibilgailuko luzetarako erdiko ardatzarekiko hiru gurpil simetriko edo asimetriko dauzkatena, 50 cm<sup>3</sup>-tik gorakoak edo ordu bakoitzeko 50 km-tik gorako abiadura har dezaketenak, eta ibilgailuko pisu gordin gisa, gehienez ere, tona bat dutenak.

3. Pizgarriak jaso ditzaketen ibilgailu modeloak Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuaren Ibilgailuen Oinarrian azaldu behar dira, (<http://coches.idae.es/base-datos/vehiculos-eligibles-programa-MOVES>), eta honako betekizun hauek bete behar dituzte:

- a) M eta N kategorietako ibilgailuetarako, honako mota hauetako bat izatea eskatzen da:
  - i. Ibilgailu elektriko puruak (BEV), guztiz eta soilik motor elektrikoaren bitartez propulsaioak, energiaren zati bat edo energia osoa beren baterien elektrizitatetik lortzen dutenak, kargatzeko, ibilgailutik kanpoko iturri baten energia darabiltenak, sare elektrikoa adibidez.
  - ii. Autonomia hedatuko ibilgailu elektrikoak (EREV), guztiz eta soilik motor elektrikoaren bitartez propulsaioak, energiaren zati bat edo energia osoa beren baterien elektrizitatetik lortzen dutenak, kargatzeko, ibilgailutik kanpoko iturri baten energia darabiltenak, eta, bateriak kargatzeko, gasolina edo gasolio bidezko barne-errekuntzako motor bat daukatenak.
  - iii. Ibilgailu hibrido «entxufagarriak» (PHEV), guztiz edo partzialki gasolina edo gasolio bidezko barne-errekuntzako motorren zein motor elektrikoaren bitartez propulsaioak, energiaren zati bat edo energia osoa beren baterien elektrizitatetik lortzen dutenak, kargatzeko, ibilgailutik kanpoko iturri baten energia darabiltenak, sare elektrikoa adibidez. Kanpoko energia-iturri batetik kargatutako bateriekin elikatu beharko da motor elektrikoa.
  - iv. Erregai-zelulen bidezko ibilgailu elektrikoak (FCV): Ibilgailu elektrikoak, soil-soilik, hidrogeno ontziratuak erregai-pila baten energia elektrikoak erabiltzen duena.
  - v. Erregai-zelulen bidezko ibilgailu elektriko hibridoak (FCHV): Erregai-zelulen bidezko ibilgailu elektrikoak, bateria elektrikoak kargagarriak ere biltzen dituenak.
- b) Pizgarri-programaren eraginpean dauden M1 eta N1 ibilgailuei gutxienez 1.000 euroko deskontua egingo zaie fakturan erositako ibilgailuaren fabrikatzaile/inportatzailearen edo saltokiaren eskutik, eta laguntzaren azken hartzaileari ezarriko zaio deskontu hori.

Ibilgailuak fabrikatzaile edo inportatzaileei erosten bazaizkie agentzia-kontratuaren bitartez (agentea/kontzesionarioa/saltokia), kontzesionarioak/agenteak saltoki gisa jarduteko aukera izango du, eragiketen ordainketaren azken hartzailea izango den fabrikatzaileak/inportatzaileak azken faktura egiteari kalterik egin gabe.

- c) L kategoriako ibilgailuei honako hauek eskatzen zaizkie:
  - i. Soilik motor elektrikoaren bitartez propulsaioa eta ibilgailu elektriko gisa homologatuta egotea.

- ii. Laguntza jaso dezaketen motozikleta elektriko berriek (L3e, L4e eta L5e kategoriak) litiozko bateriak eduki behar dituzte, gutxienez 3 kW-ko potentzia duen motor elektrikoa, eta, gutxienez, 70 km-ko autonomia.
- d) Halaber, eta M1, N1 eta L kategorietako ibilgailu berrien erosketaren kasuan, ibilgailu subentzionagarria erosteko laguntzaren zenbatekoa handitzeko aukera izango da Oinarri hauetako III. ERANSKINEAN jasotako kopuruaren arabera, baldin eta azken hartzaileak egiaztatzen badu Espainian matrikulatutako ibilgailu bati zirkulaziorako behin betiko baja eman izana, Trafiko Zuzendaritza Nagusiko Ibilgailuen Erregistroan haren titularra bada, eta, betiere, ibilgailuek Oinarri hauetan jasotako betekizunak betetzen badituzte.

Kasu horretan, laguntzaren azken hartzaileak, ibilgailu subentzionagarriaren erosle titularra izango denak, edota ibilgailuaren errentaria, «renting» edo leasing operatiboko eragiketetan, txatar bihurtu beharreko ibilgailuari Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren Ibilgailuen Erregistroan zirkulaziorako behin betiko baja eman zaiola egiaztatzeko aukera izango du, ibilgailuaren behin betiko baja egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztuz. Txatar bihurtu beharreko ibilgailuak M1 edo N1 izan beharko du, M1 edo N1 ibilgailuak erosiz gero, edo M1, N1 edo L, kategoria horretako ibilgailuak erosiz gero, eta Espainian matrikulatuta egon data hauetako lehena baino gutxienez zapi urte lehenago: salerosketa-fakturaren data edo eskaeraren erregistro-data.

Horrez gain, eta txatar bihurtu beharreko ibilgailuaren kategoria edozein izanik ere, laguntzaren azken hartzaileak txatar bihurtu beharreko ibilgailuaren titularra ere izan behar du, honako data hauetako lehena baino gutxienez aurreko hamabi hilabeteetan: salerosketa-fakturaren data edo eskaeraren erregistro-data; eta, gutxienez laguntza eskatu aurreko urtetik, EAEko udalerrri batean Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Zerga behar bezala ordaindu izanaren azken ordainagiria aurkeztu beharko du.

- 4. «Renting» bidezko finantzaketa-eragiketen bitarteko ibilgailuen eskuratzeek honako baldintza hauek bete beharko dituzte laguntza jasotzeko:
  - a) Dagokion errentamendu-kontratuak gutxienez bi urteko iraupena ezartzea indarrean hasten den egunaz geroztik, eta betiere 2021eko apirilaren 9tik aurrera formalizatu bada. Ibilgailuaren salerosketa-fakturaren data eta matrikulazio-data 2021eko apirilaren 9aren ondokoa izango da, halaber, **2.1 Oinarriko** 1., 2., 3. eta 5. epigrafeetan definitutako azken hartzaileentzat, azken epigrafe horren kasuan baldin eta merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikorik deklaratu ez badute, baita administrazio autonomikoaren zuzeneko inbertsioetarako ere; eta eskaera programa honi dagokion deialdian erregistratu den dataren ondokoak **2.1 Oinarriko** 4. epigrafean definitutako azken hartzaileentzat, baita 5. epigrafean bildutakoentzat ere, baldin eta merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoarekin.
  - b) Errentamendu-kontratuak espresuki adierazi beharko du errentaria dela ematen den laguntzaren azken hartzailea, eta adierazi beharko du espresuki, halaber, «renting» enpresak, laguntzaren zenbatekoaren ordainketa jasotzen duen egunean bertan, laguntza horren zenbateko osoa baliatuko duela errentariak ordaintzeke dauzkan ordainketa-kuotak edo errentamenduko errenta murrizteko.
  - c) Kontratuak adieraziko du, ordaintzeke dauden kuoten batura laguntzaren zenbatekoa baino txikiagoa izanez gero, azken hartzaileari ordaintzeke dagoen laguntza-soberakina azken hartzaileari ordaindu beharko zaiola «renting» konpainiaren eskutik, errentamendu-kontratu amaitzean. Horrenbestez, errentariak, laguntzaren azken hartzailea den heinean, Oinarrietan aurreikusitako betekizun eta bateraezintasunak bete beharko ditu.

- d) «Renting» eragiketetan, kasu guztietan, laguntza tramitatzen duena edozein izanik ere, laguntzaren azken hartzaileak dokumentu bat sinatuko du, kobratzeko eskubidea eragiketa formalizatzen duen «renting» konpainiari lagutzen diola aditzera emateko.

## 2. pizgarri-programa: Ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegiturak ezartzea

1. Ibilgailu elektrikoetarako bateriak kargatzeko sistemak jarduketa subentzionagarriak izango dira, zuzenean erosteko modalitatean.

Gainera, jabeekideen komunitateen kasuan, ibilgailu elektrikoari lotutako kargatzea kargatze adimendunaz hornitzeko komunikazio-zerbitzua eta aurreinstalazio elektrikoak edukitzeko behar diren kanalizazioak ere subentzionagarriak izango dira.

Ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegitura, sarbide publikokoa zein erabilera pribatukoa izan daiteke. (3. eta 4. moduak). 22 kW-tik beherako edo horren berdina den potentzia duen elektrizitate-transferentzia ahalbidetzen duten kargatze-azpiegiturretako inbertsioetara bideratzen diren, eta 651/2014 zenbakiko Erregelamendua (EB) aldatzen duen 2023ko ekainaren 23ko Batzordeko 2023/1315 Erregelamendura (EB) biltzen diren laguntza-eskaerak kargatze-funtzionalitate adimendunak jasateko gai direla egiztatu beharko dute, 2023ko irailaren 13ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2023/1804 Erregelamenduaren (EB) 2. artikuluko 65. apartatuko definizioaren arabera, erregelamendu hori erregai alternatiboetarako azpiegitura bat ezartzeari buruzkoa delarik eta 2014/94/EB Zuzentaraua indargabetzen duelarik.

Honako hauek dira kostu subentzionagarriak: proiektua; obra zibila; ingeniarietako eta obrabuzendaritza-kostuak; kargatze-azpiegituraren kostua; edozein elementu elektriko instalatzea edo eguneratzea, transformadorea barne; banaketa-sarearekin, sekzionatze- eta eraldatze-zentroekin eta erdi-tentsioko hargunearekin konektatzeko lanak, kargatze-azpiegitura elektrizitatearen tokiko produkzio- edo biltegitratze-unitatera edo sarera konektatzeko beharrezkoak direnak; lur edo errepideak egokitzea; instalazio-kostuak; eta lotutako eta beharrezko baimenengatikoko kostuak. Energia elektrikoak sortzeko edo biltegitratzeko tokiko biltegitratzeko edo produkzio berriztagarriko unitatearen kostuak izango balira hautagarriak izango dira, soil-soilik, kargatze-puntura soilik bideratzen badira, eta kargatze-estazioaren zatitza jo badaitezke. Elektrizitatea in situ produzitzeko instalazioaren produkzio-kapazitate zuzendutako ez ditu gaiztatu konektatuta dagoen kargatze-azpiegituraren gehieneko potentzia zuzendutako edo kargatze-kapazitatea. Hortaz, sarera konektatutako energia berriztagarriko produkzio-unitateak ezin izango dira hautatu, nahiz eta kargatze-puntuari partzialki lotuta egon. Kargatze-estazioan integratutako ordainketa-sistema, kargatze-estazioen seinaleztapena, eta kudeaketa, kontrol eta segurtasuneko sistema ere subentzionagarriak izango dira, halakorik bada.

Kontagailu adimendunen instalazioa ez da subentzionagarria izango, eta konpainia elektrikoek kontsumitzaileen eskura jarri beharko dituzte, hau da, azken erabiltzaileen edo kargatze-kudeatzaileen eskura, alokairu-erregimenean orokorrean.

Jabetza horizontaleko erregimenean dauden eraikinetako aparkalekuen kasuan, ibilgailu elektrikoak kargatzeko aurreinstalazio elektrikoak jarduketa subentzionagarria izango da, baldin eta hoditeria nagusi bat biltzen badu eremu komunitarioetan barrena (hodiak, kanalak, erretiluak, etab.), aparkalekuko plazetan kokatutako kargatze-estazioetaraino bideratzeko moduan, abuztuaren 2ko 842/2002 Errege Dekretuak onartutako Erdi-tentsiorako erregelamendu elektroteknikoaren ITC-BT-52 instrukzioaren 3.2 idatz-zatian deskribatutakoari jarraikiz. Hautagarriak izango dira, halaber, ibilgailu elektrikoak kargatzea kudeatzeko sistemak, baita telekomunikazioetako, Interneteko, 3Gko eta 4Gko instalazioak edo antzeko sistemak ere, baldin eta ibilgailuen kargatze adimendun bat bermatzea ahalbidetzen badute, kontratatutako potentzia elektrikoak igotzeko premiak minimizatzen moduan.

Jarduketak onartzeko hautagarritasunaren xedeetarako, **2.1 Oinarriko** 1., 2., 3. eta 5. epigrafeetan definitutako azken hartzaileentzat, azken epigrafe horren kasuan baldin eta merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikorik deklaratu ez badute, baita administrazio autonomikoaren zuzeneko inbertsioetarako ere, dagokion azpiegituraren erosketa eta instalazioari dagokion fakturaren datak 2021eko apirilaren 9aren ondokoa izan beharko du; eta **2.1 Oinarriko** 4. epigrafean definitutako azken hartzaileentzat, baita 5. epigrafean bildutakoentzat ere, baldin eta merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoa deklaratu badute, kontratu, faktura eta ordainagirietako datek eskaera programa honi dagokion deialdian erregistratu den dataren ondokoak izan beharko dute.

2. Kargatze-azpiegiturak honako erabilera hauek izan ditzake:

- Erabilera pribatua bizitegi-sektorean, familia bakarreko etxebizitzak barne.
- Erabilera publikoa bizitegi-sektoretik kanpo (aparkaleku publikoak, hotelak, merkataritzaguneak, unibertsitateak, ospitaleak, industrialdeak, kiroldegiak, etab.).
- Erabilera pribatua enpresa pribatu eta publikoetako aparkalekuetan, beren ibilgailuei zerbitzua emateko.
- Erabilera pribatua enpresa pribatu eta publikoetako aparkalekuetan, beren langile eta bezeroei zerbitzua emateko.
- Erabilera publikoa bide publikoan, eta hiriko eta hiriarteko bide-ardatzetan.
- Erabilera publikoa errepide-sarean, bereziki, gasolina-zerbitzuguneen azpiegituran.

Kargatze-sistemek honako betekizun hauek bete beharko dituzte:

- Behe-tentsioan konektatutako instalazioetarako, abuztuaren 2ko 842/2002 Errege Dekretuak onartutako Behe-tentsioko erregelamendu elektroteknikoari jarraikiz ezarriko da instalazioa, zehazkiago, ITC-BT-52 instrukzioari jarraikiz. IP eta IK babes-maila egokia kokapenaren arabera, Behe Tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoari jarraikiz.
- Elikatzea: monofasikoa edo trifasikoa 230-400 VAC, edo tentsio handiagoak kargatze ultraazkarreko kasuetarako.
- 3.º Segurtasun-araudiaren arabeko babes elektrikoak.
- 4.º CE deklarazioa.
- 5.º Sarbide publikoko kargatze-kasurako, honako hauek eduki beharko ditu gutxienez: 2 motako konektorea IEC 62.196-2 arauaren arabera, edo CCS2- Combo 2 konektorea, IEC 62196 arauaren arabera, 3 moduko edo 4 moduko bateragarritasunarekin instalazioaren arabera, eta energia-neurri integratuarekin. Abenduaren 9ko 639/2016 Errege Dekretuko 4. artikuluan arabera, ibilgailu elektrikoan erabiltzaileei kargatze puntualak egiteko aukera emango die, dagokion kargatze-puntuko operadorearekin kontraturik tartean izan gabe, kargatze-zerbitzua erabiltzaile interesdunen eskura jarriz diskriminaziorik gabeko modu ireki eta garden batean. Gainera, puntua gutxienez bost urtean indarrean egongo dela bermatu beharko du. Horrez gain, honako konektibitate-baldintza hauek bete beharko ditu:
  - Instalazioak erabateko konektibitatea ahalbidetzen dion konexio-interfazea eta datuen toki-biltegitzeko memoria-sistema duela egiaztatzea.
  - Ocpp v1.6 protokoloarekin edo bertsio berriago batekin bateragarria, web zerbitzuak erabiliz (SOA); eta bertsio berriagoetara eguneratzeko modukoa.
  - Transferitutako energiaren eta potentziaren neurria.
  - 3G/GPRS komunikazio mugikorreko modulua edo berriagoa, edo edozein komunikazio-kanal baliokidea.

### 3. Potentziaren arabera, kargatze-sistemak honela sailkatuko dira:

- a) Kargatze-sistema lotua: 7 kW-tik beherako potentzia.
- b) Kargatze-sistema konbentzionala: Gutxienez 7 kW-ko eta gehienez 15 kW-ko potentzia.
- c) Kargatze erdiazkarreko sistema: Gutxienez 15 kW-ko eta gehienez 40 kW-ko potentzia.
- d) Karga azkarreko sistema: Gutxienez 40 kW-ko eta gehienez 100 kW-ko potentzia.
- e) Kargatze ultraazkarreko sistema: Gutxienez 100 kW-ko potentzia.

Kargatze-sistema batean potentzia desberdinak bilduko balira, instalazioko kargatze-puntuen gehieneko potentziaren arabera sailkatuko litzateke sistema.

## II. ERANSKINA - DOKUMENTAZIOA

### Laguntza-eskaera egiteko eskatutako dokumentazioa

Laguntza eskatzeko inprimakiarekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztuko dira:

a) Establezimenduko pertsona fisiko titularraren NANaren (edo atzerritarren nortasuna egiaztatzen eta AIZ jasotzen duen dokumentu baliokidearen) edo pertsona juridikoaren IFZ jasotzen duen identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia, baita, kasu batean zein bestean, ordezkariaren agiriaren fotokopia ere.

b) Pertsona juridiko publiko edo pribatuek eta nortasun juridikoa duten edo ez duten gainerako erakundeek aurkeztu beharko dituzte, aurreko idatz-zatian ezarritakoaz gainera, laguntza-eskaera egiten duen pertsonaren ordezkatzeko eskumenen egiaztagiria, haien ordezkariak diren heinean, hala badagokio, dagozkion erregistro publikoetan behar bezala inskribatuak.

c) Sektore publikoari lotutako edo haren mendeko erakundeek, berriz, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute atxikitze hori egiaztatzeko, Estatuko Administrazio Orokorrarekin, autonomia-erkidego batekin edo toki-erakunde batekin zerikusia ote duen zehatzuz, eta merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoren bat garatzen duen edo ez aditzera emanez.

d) Laguntzen azken hartzaileek, 2.1 oinarriaren 2. epigrafean zerrendatutakoek izan ezik, Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren Enpresaburu, Profesional edo Atxikitzaileen Erroldan inskribatuta egotearen ziurtagiria edo dagokion Foru Ogasunak emandako eredu baliokidea aurkeztu behar dute edo, horrela ez bada, errolda horretan inskribatuta ez daudela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Profesional autonomoen kasuan Minimis Erregelamenduari buruzko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da.

Laguntza-eskaera aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileari baimena ematea organo emaileak zuzenean eta bitarteko telematikoen bidez lortu dezan Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren Enpresaburu, Profesional edo Atxikitzaileen Erroldan inskribatuta egotearen ziurtagiria edo dagokion Foru Ogasunak emandako eredu baliokidea, eta kasu horretan eskatzaileak ez du dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko. Nolanahi ere, eskatzaileak baimenari espresuki uko egiteko aukera izango du, eta kasu horretan ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

e) Enpresen kasuan, erantzukizunpeko adierazpena, non enpresa txikia, ertaina edo handia dela adieraziko den, 2014ko ekainaren 17ko EB 651/2014 Erregelamenduko I. Eranskinean jasotako definizioaren arabera, edo, hala badagokio, merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikorik gabeko erakunde bat dela.

f) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dauzkala egiaztatzen duen dokumentazioa.

Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduko 18 eta 19. artikuluetan aipatutako adierazpenak edo dokumentuak aurkezteko betebeharra bete behar ez badute, salbuespen horren funtsa adierazi beharko da espresuki, Erregelamendu honen 24. artikuluan aurreikusitakoa betez. Aitzitik, adierazpen edo dokumentu horiek nahitaez aurkezteko salbuespenik ez badago, zerga-

betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituztela egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, Erregelamendu horren 22. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Laguntza-eskaera aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileari baimena ematea organo emaileak zuzenean lor dezan uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduko 18. eta 19. artikuluetan aurreikusitako zirkunstantzien akreditazioa, ziurtagiri telematikoen bitartez, eta kasu horretan eskatzaileak ez du dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko. Nolanahi ere, eskatzaileak baimenari espresuki uko egiteko aukera izango du, eta kasu horretan ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

g) Dirulaguntzei buruzko Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. idatz-zatietan zerrendatutako zirkunstantzietako batean ere ez dagoela dioen erantzukizunpeko adierazpena, eta bereziki, dirulaguntzak itzultzeko betebeharren ordainketan egunean dagoela, Dirulaguntzei buruzko Erregelamendu Orokorraren 25. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, krisi-egoeraren batean ez dagoela, eta, 651/2014 Erregelamenduari jarraikiz, Batzordeak legez kontrako laguntza bateraezin bat jo izanagatik berreskuratze-agindu baten eraginpean ez dagoela dioena.

h) Jarduketa guztietarako, eskatutako edo jasotako bestelako laguntzei buruzko adierazpena, jarduketa bererako, edo *minimis* erregimenaren eraginpean, aurreko bi zerga-ekitaldietan, eta laguntza eskatzen den arribideko ekitaldian.

i) I. ERANSKINEAN definitutako 2. Pizgarri Programaren jarduketetarako, aurrera eraman beharreko jarduketaren memoria deskribatzailea eskatuko da, gutxienez, jarduketaren deskribapena eta norainokoa, inbertsioa, kostu subentzionarioa eta eskatutako laguntza bildu beharko dituen.

j) Laguntzan igoera bat izateko eskubidea duen kolektibo bateko kide diren azken hartzaileak, III. Eranskinean adierazitakoari jarraikiz, honako arrazoi hauengatik:

- i. Mugikortasun murriztuagatik desgaitasuna izaki, ibilgailua egokitu behar izateagatik, kondizio hori egiaztatzen duen ziurtagiri baten bitartez.
- ii. 5.000 biztanletik beherako udalerrri batean erroldatuta egoteagatik, erroldatze-ziurtagiriaren bitartez. 5.000 biztanletik beherako udalerrietan erroldatuta daudenean, jarduketa subentzionarioari dagokion fakturaren aurreko data batean erroldatuta daudela egiaztatu beharko dute, eta eskaera erregistratu zenez geroztik gutxienez bi urtean erroldatuta egon direla.
- iii. Taxia edo gidaridun ibilgailuen zerbitzuak erabiltzeagatik, justifikazio-fasean egiaztatuko da, zirkulazio-baimenaren bitartez, hurrengo 2. idatz-zatian zehaztutakoaren arabera.

Aurreko ii atalean adierazitako dokumentuak ekartzea ez da beharrezkoa izango baldin eta interesdunak EEEri bere baimen espresua ematen badiu horiek automatikoki egiaztatzeko aukera izan dezan. Dena den, baimen hori espresuki ukatu ahal izango du eskatzaileak, eta kasu horretan dagokion ziurtagiria edo eskatutako dokumentua aurkeztu beharko du, eta hori guztia 39/2015 Legearen 28. artikuluan xedatutakoari jarraikiz. Bestetik, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalen bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren zortzigarren xedapenak administrazio publikoei eskumena ematen die bere esku dauden datu pertsonalak egiaztatzeko, datu horien zehaztasuna egiaztatzearen.

k) Aurrekontu banakatua. 1. pizgarri-programaren renting bidezko errentamendu-jarduketaren kasuan, enpresa errentatzailearen eskaintzaren kopia, non ordaindu beharreko kuota azalduko den, baita kuota horretatik ibilgailuaren kostuari dagokion zatia ere.



l) Oinarri hauetako 2.1.4 idatz-zatian aurreikusitako kasu espezifikorako, pertsona juridikoak, helbide fiskala EAEn ez izan arren, Autonomia Erkidego horretan (i) bere jarduera garatzen duela, (ii) egoitza bat duela, eta (iii) bere plantillaren zati bat Autonomia Erkidego horretan duela egiaztatzen duten dokumentuak; hori guztia, gutxienez, laguntza-deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren aurreko bi urteez gerotik.

m) Laguntzaren azken hartzailearen titulartasunpeko kontuaren IBAN zenbakiaren bankuziurtagiria, eta azkenean ebatziko den dirulaguntza kontu horretan ordainduko da, behin laguntza-programa honek eskatutako prozesuko betekizun guztiak bete ondoren eskatzailea laguntzaren azken hartzaile bihurtzen denean. Salbuespen gisa, renting eragiketen kasuan, renting erakundearena izango da kontua, (kontuan izan behar da ordainketaren justifikazio-fasean kontratua egiaztatu beharko dela, baita ibilgailuaren ordainketa-egiaztagiria eta kobrantza-eskubidea lagatzen duen dokumentua ere).

Ibilgailu erdiberrien jarduketetarako, 1. Pizgarri-programako agiri ofiziala; bertan, CNAE kode eguneratua jasoko da, dirulaguntzaren xede den ibilgailuaren titulartasuna eskualdatzen duen fabrikatzailearen edo renting enpresaren zein renting a car enpresarena jarduera ekonomikoari dagokiona, hala nola onuradunaren identifikazio fiskaleko txartela, zentsu-aitorpena, jarduera ekonomikoen gaineko zerga, eraketa-eskritura...

#### Egindako jarduketa justifikatzeko eskatutako dokumentazioa

Jarduketa bakoitzerako honako egiaztagiri hauek aurkeztuko dira:

A) *1. pizgarri-programa: Ibilgailu elektriko «entxufagarrien» eta erregai-pila bidezkoen erosketa.*

1.º Erositako ibilgailuaren fitxa teknikoaren (IAT txartela) kopia.

2.º Erositako ibilgailuaren zirkulazio-baimenaren kopia, edo Trafiko Zuzendaritza Nagusiak emandako behin-behineko Zirkulazio Baimenaren fotokopia. P letraz hasten den matrikula duten ibilgailuetarako aldi baterako baimena ematen den kasuetan, gehienez 60 eguneko epean behin betiko zirkulazio-baimenaren fotokopia aurkeztea eskatuko da. Gainera, bederatzi hilabeterainoko ibilgailu elektrikoaren edo erregai-pila bidezkoen kasuetan, ibilgailuaren zirkulazio-baimena emango da, laguntzaren azken hartzaileari ibilgailua saldu dion kontzesionarioaren, saltokiaren edo fabrikatzaile/inportatzailearen izenean. Taxi-zerbitzuen edo gidaridun alokairu-zerbitzuen (VTC gaztelaniaz) erabileretarako egiaztatuko da erositako ibilgailuko D.4 eremuan PUBL-Taxi (A04 kodea) edo «gidaridun alokairua (ACC gaztelaniaz)» dakarrela.

3.º Interesduna zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari dagokionez egunean dagoela egiaztatzen duen dokumentazioa.

Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduko 18 eta 19. artikuluetan aipatutako adierazpenak edo dokumentuak aurkezteko betebeharra bete behar ez badute, salbuespen horren funtsa adierazi beharko da espresuki, Erregelamendu honen 24. artikuluan aurreikusitakoa betez. Aitzitik, adierazpen edo dokumentu horiek nahitaez aurkezteko salbuespenik ez badago, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituztela egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, Erregelamendu horren 22. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

4.º «Renting» edo leasing operatiboaren kasuan, «renting» edo leasing operatiboko kontratuaren kopia bat erantsiko da, non bi urteko gutxieneko iraupena ezarriko den, eta, kontratuaren errentari gisa, laguntzaren eskatzailea edo laguntzaren azken hartzailea izan daitekeena ageriko den. Kontratu horren data 2021eko apirilaren 9aren ondokoa izango da **2.1**

**Oinarriko 1., 2., 3. eta 5. epigrafeetan** definitutako azken hartzaileentzat, azken epigrafe horren kasuan baldin eta merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikorik deklaratu ez badute, baita administrazio autonomikoaren zuzeneko inbertsioetarako ere. Bestetik, laguntza-eskaeraren erregistro-dataren ondokoa izango da **2.1 Oinarriko 4. epigrafean** eta 5. epigrafean definitutako azken hartzaileentzat, azken epigrafe horren kasuan badin eta merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoa badute. Gainera, espresuki adieraziko da «renting» enpresak laguntzaren guztizkoa jasanaraziko duela errentariak ordaintzeke dauzkan kuotetan, «renting» enpresak laguntzaren zenbatekoa jasotzen duenez geroztik. Ordaintzeke dauden kuoten batura laguntzaren zenbatekoa baino txikiagoa izanez gero, «renting» kontratuan jaso beharko dira, halaber, errentamendu-kontratua amaitzean, azken hartzaileari ordaintzeke dagoen laguntza-soberakina ordaintzeko modua eta epea.

5.º Laguntza zuzenean tramitatu bada azken erabiltzailearen bitartez, kobrantza-eskubidearen lagapeneko edo endosuko dokumentua, non «renting» enpresari laguntza jasotzeko baimena ematen zaion.

6.º Ibilgailuaren salerosketa-fakturaren kopia, azken erabiltzailearen izenean, edo, renting edo leasing finantzarioko eskuratzeen kasuan, renting edo leasing enpresaren izenean, kontratu horren data 2021eko apirilaren 9aren ondokoa izango delarik **2.1 Oinarriko 1., 2., 3. eta 5. epigrafeetan** definitutako azken hartzaileentzat, azken epigrafe horren kasuan baldin eta merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikorik deklaratu ez badute, baita administrazio autonomikoaren zuzeneko inbertsioetarako ere. Laguntza-eskaeraren erregistro-dataren ondokoa izango da **2.1 Oinarriko 4. epigrafean** eta 5. epigrafean definitutako azken hartzaileentzat, azken epigrafe horren kasuan badin eta merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoa badute. Autofakturak ez dira onargarriak izango. Fakturan adierazi beharko dira erositako ibilgailuaren matrikula edo bastidore-zenbakia, marka, modeloa eta bertsioa, eta fabrikatzaile/inportatzailearen edo saltokiaren gutxienez 1.000 euroko deskontua M1 eta N1 kategorietako ibilgailuen erosketetarako «MOVES III programaren» esparruan, BEZa aplikatu baino lehen jaso beharko dena.

7.º Ibilgailuko salerosketa-fakturaren ordainketaren egiaztagiriak: Honako hauek identifikatzea ahalbidetuko duten ordainagiriak izango dira baliodunak:

- a) Azken hartzailea: argi utzi beharra dago laguntzaren azken hartzailea dela ordaintzaile bakarra, berak edo bere izenean egindako zuzeneko ordainketa baten bitartez (dagokion dokumentazio-akreditazioa eginez), edo, hala badagokio, «renting» edo leasing finantzarioko enpresaren bitartez, azken hori justifikatuko delarik dagokion kontratuaren eta finantza-erakundeak hornitzaileari azken hartzailearen izenean egindako ordainketaren ziurtagiriaren bitartez.
- b) Ordaindutako kopuruak jasotzen dituen hirugarrena (saltokia edo kontzesionarioa).
- c) Ordainketa-data (balio-data) edo laguntzaren azken hartzailearen funtsen benetako irteera. **2.1 Oinarriko 4. epigrafean** eta 5. epigrafean definitutako azken hartzaileen kasuan, azken epigrafe horren kasuan badin eta merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoa badute, eskaeraren erregistro-dataren ondorengoak izan beharko dute ordainketa-dateak, izan beharreko izaera pizgarria bete dezaten.
- d) Dirulaguntzaren xede den ibilgailua.
- e) «Renting» kasuetan, enpresa errentatzailea.

8.º Laguntzaren zenbatekoa transferitzeko banku-datuak egiaztatzen dituen ziurtagiria. Laguntzaren azken hartzailea, laguntza sartzen den kontu-zenbakiaren titularra izango da, azken erabiltzaileari laguntzaren zenbatekoa aurreratu dioten «renting» enpresen kasuan izan ezik; kasu

horretan, kontratua egiaztatzen bada, baita ibilgailuaren ordainagiria eta kobratzeko eskubidea lagatzeko dokumentua ere, horrelakoetan «renting» erakundearen kontua aintzat hartuko delarik.

9.º Txatar bihurtu beharreko ibilgailuaren dokumentazioari dagokionez, honako hauek aurkeztu beharko dira:

a) Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren izenean dagokion Ibilgailuen Tratamendurako Baimendutako Zentroak emandako «Ibilgailuaren behin betiko baja egiaztatzen duen ziurtagiriaren» kopia, edo bestela, dagokion Trafikoko Buruzagitza Probintzialaren Ibilgailuen Erregistro Orokorraren txostena, behin betiko baja egiaztatzen duena.

b) Ibilgailuaren zirkulazio-baimenaren kopia, non lehen matrikulazioaren data, Espainiako matrikulazio-data eta emate-data adieraziko diren. Dokumentu horietako edozeinen faltan, ibilgailuaren historialaren berri ematen duen Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren txostena aurkeztuko da.

c) EAEko udalerrri batean gutxienez laguntza-eskaeraren aurreko urtetik behar bezala ordaindutako txatar bihurtutako ibilgailuaren Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Zergaren ordainagiriaren kopia.

## B) 2. pizgarri-programa: Ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegiturak ezartzea

1.º Memoria Teknikoa edo eskatuz gero egindako instalazioaren proiektua, behe-tentsioko erregelamendu elektroteknikoaren arabera.

2.º Sarbide publikoko kargatze-kasuetarako, kargatze-sistemen kokapena, kokapen horien erreferentzia plano batean, helbideak, zenbakia, eta longitudeko eta latitudeko GNSS koordinatuak (GPS, Galileo edo uztailearen 27ko 1071/2007 Errege Dekretuarekin bateragarriak diren beste konstelazio batzuk) adierazita. Eraikinen eta parkingaren kasuan, parkingera sartzeko ibilgailuek duten sarbide nagusiari buruzkoak izango dira koordinatuak.

3.º Fakturak. Fakturak xehatu egin dira eta laguntzaren azken hartzailearen izenean eman behar dira, edo renting enpresaren izenean, kasuan-kasuan, laguntzako kontzeptuak identifikatzeko moduan betiere. Data, edozein kasutan ere, 2021eko apirilaren 9aren ondokoa izango da **2.1 Oinarriko** 1., 2., 3. eta 5. epigrafeetan definitutako azken hartzaileentzat, baldin eta merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikorik deklaratu ez badute, baita administrazio autonomikoaren zuzeneko inbertsioetarako ere. Laguntza-eskaeraren erregistro-dataren ondokoa izango da **2.1 Oinarriko** 4. epigrafean eta 5. epigrafean definitutako azken hartzaileentzat, azken epigrafe horren kasuan baldin eta merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoa badute. 3.000 eurotik beherako zenbatekoa duten fakturak nahitaez aurkeztu beharra salbuesten da, abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 63. artikulua b) letran ezarritakoari jarraikiz.

4.º Egotzitako salerosketa-fakturen ordainketaren justifikazio-dokumentuak. Baliozkotzat jotzen diren honako hauek identifikatzea ahalbidetzen duten ordainketa-egiaztariak:

a) Azken hartzailea; argi geratu behar du ordaintzaile bakarria laguntzaren azken hartzailea dela, zuzeneko ordainketaren edo haren izenean egindako ordainketaren bidez (dagokion dokumentu-egiaztapenaren bidez).

b) Ordaindutako diru-kopuruak jasotzen dituen hirugarrena.

c) Ordainketa-data (balio-data) edo azken hartzailearen funtsen benetako irteera. **2.1 Oinarriko 4.** epigrafean eta 5. epigrafean definitutako azken hartzaileen kasuan, azken epigrafe horren kasuan baldin eta merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoa badute, eskaeraren erregistro-dataren ondorengoak izan beharko dute ordainketa-dateak, izan beharreko izaera pizgarriarekin bete dezaten.

5.º Abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 63. artikulua a) letran aurreikusitakoa gorabehera, 100.000 eurotik beherako zenbatekoaz emandako dirulaguntzetarako ez da dirulaguntzaren justifikazio-dokumentu gisa onartuko justifikazio-kontu sinplifikatu bat aurkeztea.

6.º Azken hartzailea pertsona juridiko publiko bat den kasurako, laguntzako ondasunak edota zerbitzuak eskuratzeko lizitazio-agirien argitaratze-data egiaztatzeko baliagarria den esteka ahalbidetuko duen erantzukizunpeko aitortpena, dagokion pertsona juridiko publiko onuradunaren organo eskudunak emandakoa.

7.º Azken hartzailea pertsona fisiko edo juridiko pribatu bat den kasuan, laguntzako ondasun edota zerbitzuen hornidura-kontratuaren kopia, dagokion pertsona fisiko edo juridiko pribatu onuradunak formalizatua. **2.1 Oinarriko 4.** epigrafean eta 5. epigrafean definitutako azken hartzaileen kasuan, azken epigrafe horren kasuan baldin eta merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoa badute, eskaeraren erregistro-dataren ondorengoak izan beharko dute kontratuen formalizazio-dateak, izan beharreko izaera pizgarriarekin bete dezaten.

8.º Autonomia-erkidegoko organo eskudunak emandako instalazio elektrikoko ziurtagiriaren kopia. Nahitaezko administrazio-lizentzia eta administrazio-baimenak daukatela egiaztatzen duen justifikazio-dokumentazioa aurkeztu behar dute jarduketek, dagokion jarduketak hori eskatzen badu. Sarbide publikoko kargatze-kasuetan, ezein erabiltzaileri ez diola sarbidea diskriminatzen egiaztatu beharko du, kargatze-eragiketa kargatze-puntuaren operadorearen eta erabiltzailearen arteko kontraturik ezarri gabe ahalbidetuta. 22 kW-tik beherako edo horren potentzia berdina duten, eta 651/2014 zenbakiko Erregelamendua (EB) aldatzen duen 2023ko ekainaren 23ko Batzordeko 2023/1315 Erregelamendura (EB) biltzen diren, kargatze-kasuetarako, ekipamenduaren zehaztapen teknikoaren dokumentua aurkeztu behartu dute, kargatze-funtzionalitate adimendunak jasateko gai direla egiaztatuko duena, 2023/1804 Erregelamenduaren (EB) 65) idatz-zatiaren 2. artikulua definizioaren arabera.

9.º Banku-datuak egiaztatzen dituen ziurtagiria laguntzaren zenbatekoaren transferentziarako. Laguntza sartzen den kontu-zenbakiaren titularra izan beharko du azken hartzaileak.

Pizgarrien bi programetarako, 651/2014 Erregelamenduaren mendeko enpresek, horrez gain, hori hala dela egiaztatu beharko dute honako dokumentazio hau aurkeztuz:

- Gizarte Segurantzak emandako ziurtagiria, enpresako langile kopuruari buruzko informazioa biltzen duena.
- Negozioen urteko bolumena edo urteko balantze orokorra egiaztatzeko agiria.

### III. ERANSKINA -LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Honako hau izango da laguntzen zenbateko jarduketaren bakoitzerako:

#### 1. pizgarri-programa: Ibilgailu elektrikoak erostea

1. Laguntzaren eskatzailea **2.1 Oinarriko 1., 2., 3. eta 5.** epigrafeetan definitutako arteen bilduta badago, eta betiere merkatuen ondasun edota zerbitzuak eskaintzeko jardura ekonomikorik ez badu, baita administrazio autonomikoaren zuzeneko inbertsioetarako ere, laguntza finkoko ondorengo banakako zenbatekoak ezartzen dira, betiere zenbatekoak ondorengo taulan ezarritako ibilgailuaren salmenta-prezioa gainditzen ez badu, eta ez da diru-kopuru hori ordainduko kontrako kasuan, eta muga hori zehazteko prezio gisa hartuko da bezeroarentzako salmenta-prezioa laguntza eskatzeko unean, edo, zuzeneko inbertsioen kasuan, dagokion esleipenaren ondoriozko prezioa, BEZa baino lehen.

Mugikortasun murriztuko desgaitasuna duten pertsonak diren azken hartzaileek M1 kategoriako ibilgailuak erosten dituzten kasuetarako, eta ibilgailu egokitua edo haien gidatzeko erara egokitutakoa bada, eta betiere egokitzapen hori erositako ibilgailuaren fitxa teknikoan jasota badago, % 10 batean gehituko da laguntzaren zenbatekoa. Profesional autonomoek eskuratutako N1 kategoriako ibilgailuen erosketan ere aplikatuko da hazkunde hori, ibilgailua beren gidatzeko erara egokitzen duten mugikortasun murriztuko desgaitasuna duten pertsonak badira.

Era berean, 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietako biztanleei, betiere beren errolda egiaztatu eta gutxienez bi urtez atxikitzen badute eskaeraren erregistro-datatik, laguntza % 10ean gehituko zaie.

Taxi-erabilerarako bideratzen diren M1 ibilgailuen erosketetarako, betiere laguntzaren azken hartzaileak autonomo izaera badu, erosleak egokituko litzaiokeen laguntzaren % 10 gehigarri bat izango du, betiere egiaztatzen bada zirkulazio-baimenean, erositako ibilgailuaren D4 eremuan, PUBL-Taxi (A04 kodea) jasota dagoela. Era berean, Gidaridun Garraio Ibilgailuko (VTC gaztelaniaz) zerbitzuetara bideratzen diren M1 ibilgailuek ere % 10eko laguntza gehigarri bat izango dute, betiere zirkulazio-baimenean, D4 eremuan, «gidaridun alokairua (ACC gaztelaniaz)» jasota badago, eta betiere laguntzaren azken hartzaileak autonomo izaera badu.

Aurreko paragrafoetan adierazitako % 10eko laguntza gehigarriak ez dira metagarriak beren artean.

M1, N1 edo L kategorietako ibilgailuen kasuetarako, non eta ibilgailu subentzionagarriaren erosle titularrak, edo ibilgailuaren errentaria «renting» edo leasing operatiboko kasuan, Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren Ibilgailuen Erregistroan Espainian matrikulatutako ibilgailu baten zirkulazioko behin betiko baja egiaztatzen badu, «Laguntza txatar bihurtzarekin» zutabean ezarritako zenbatekora iritsiko da laguntzaren zenbatekoa. Txatar bihurtu beharreko ibilgailuak M1 edo N1 izan beharko du, M1 edo N1 ibilgailuak erosiz gero, edo M1, N1 edo L izan beharko du L kategoriako ibilgailuak erosiz gero, eta bi kasuetan ere Espainian matrikulatuta egon data hauetako lehena baino gutxienez zazpi urte lehenago: salerosketa-fakturaren data edo eskaeraren erregistro-data, eta, horrekin batera, I. eranskinean adierazitako eskakizunak ere bete beharko ditu. Laguntza hori metagarria da deskribatutako kolektiboentzako aurreko paragrafoetan bildutako laguntza-hazkundearekiko.

**2.1 Oinarriko 1.** epigrafean definitutako azken hartzaileentzako laguntza-muga *minimis* erregelamenduan ezarritakoa izango da.

**2.1 Oinarriko 2.** epigrafean definitutako azken hartzaileentzako laguntza-mugak azken hartzaile eta deialdi bakoitzeko ibilgailu batenak izango dira. **2.1 oinarriko 3.** eta **5.** epigrafeetan definitutako azken hartzaileentzako eta administrazio autonomikoen zuzeneko inbertsioetarako laguntza-mugak berrehun eta berrogeita hamar ibilgailurenak izango dira azken hartzaile eta urte bakoitzeko.

**2.1 Oinarriko 3.** eta **5.** epigrafeetarako definitutako azken erabiltzaileentzako laguntza-mugak, baita administrazio autonomikoen zuzeneko inbertsioetarako ere azken hartzaileko eta urteko berrogeita hamar ibilgailu izango da.

Motorizazioa	Kategoria	Autonomia funtzionamendu elektrikoko moduan (km) WLTP zikloaren arabera	Ibilgailuaren salmenta-prezioaren muga (€) BEZik gabe	Laguntza (€)	
				Txatar bihurtu gabe	Txatar bihurtzearekin
Erregai-pila (FCV, FCHV)		-	-	4.500	7.000
PHEV, EREV, BEV	M1	30 baino handiagoa edo berdina eta 90 baino txikiagoa	45.000 (53.000 betiere 8 edo 9 plazako BEV ibilgailuentzat).	2.500	5.000
		90 baino handiagoa edo berdina		4.500	7.000
PHEV, EREV, BEV, Erregai-pila	N1	30 baino handiagoa edo berdina	-	7.000	9.000
BEV	L6e	-	-	1.400	1.600
	L7e	-	-	1.800	2.000
	L3e, L4e, L5e, P ≥ 3kW-rekin	70 baino handiagoa edo berdina	10.000	1.100	1.300

2. Laguntzaren eskatzailea **2.1 Oinarriko 4.** edo **5.** epigrafean bilduta badago, azken epigrafe horren kasuan merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzen dituzten jarduera ekonomikoa duten erakunde publikoak badira, eta enpresaren edo erakundearen tamainaren arabera 651/2014 Erregelamenduan definitzen denaren arabera, laguntza finkoko ondorengo banakako kontuak ezartzen dira erregelamendu horretan ezarritakoa ez gairiditzeko moduan, betiere zenbatekoak ondorengo taulan ezarritako ibilgailuaren salmenta-prezioa gairiditzen ez badu, eta ez da dirukopuru hori ordainduko kontrako kasuan, eta aurreko idatz-zatian aurreikusitako erregela bera aplikatuko da muga hori zehazteko.

M1, N1 edo L kategorietako kasuetarako, non eta ibilgailu subentzionagarriaren erosle titularrak, edo ibilgailuaren errentaria «renting» edo leasing operatiboko kasuan, Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren Ibilgailuen Erregistroko Espainian matrikulatutako ibilgailu baten zirkulazioko behin betiko baja egiaztatzen badu, «Laguntza txatar bihurtzearekin» zutabearen ezarritako zenbatekora iritsiko da zenbatekoa. Txatar bihurtu beharreko ibilgailuak M1 edo N1 izan beharko du, baita M1, N1 edo L ere L kategorioari ibilgailuak erosiz gero, eta Espainian matrikulatuta egon data hauetako lehen baina gutxienez zazpi urte lehenago: salerosketa-fakturaren data edo eskaeraren erregistro-data, eta, horrekin batera, I. ERANSKINEAN adierazitako eskakizunak ere bete beharko ditu.

Laguntza-muga berrehun eta berrogeita hamar ibilgailuko izango da azken hartzaile eta urte bakoitzeko. Muga hori kalkulatzeko, eskaera aurkezteko data hartuko da erreferentziazat.

*Oharra: Soil-soilik elektrikoa den funtzionamendu moduaren autonomia honela definitzen da: ibilgailuak bere baterietan metatutako energia soil-soilik erabilita egiteko gai den distantzia, fabrikatzaileak ibilgailuaren dokumentazio tekniko eta komertzialean deklaritzen duena.*

Motorizazioa	Kategoria	Autonomia funtzionamendu elektrikoko moduan (km)	Ibilgailuaren salmenta-prezioaren muga (€) BEZa baino lehen	Laguntza (€)			
				Txatar bihurtu gabe		Txatar bihurtzearekin	
				ETE	Enpresa Handia	ETE	Enpresa Handia
Erregai-pila (FCV, FCHV)		-	-	2.900	2.200	4.000	3.000
PHEV, EREV, BEV,	M1	30 baino handiagoa edo berdina eta 90 baino txikiagoa	45.000 (53.000 betiere 8 edo 9 plazako BEV ibilgailuentzat).	1.700	1.600	2.300	2.200
		30 baino handiagoa edo berdina eta 90 baino txikiagoa		2.900	2.200	4.000	3.000
PHEV, EREV, BEV, erregai-pila	N1	30 baino handiagoa edo berdina	-	3.600	2.900	5.000	4.000
	L6e			800		1.000	
	L7e			1.200		1.500	
	L3e, L4e, L5e, P ≥ 3kW-rekin	70 baino handiagoa edo berdina	10.000	750	700	950	900

## 2. pizgarri-programa: Ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegiturak ezartzea

Laguntzaren muga zortzirehun mila euro (800.000 €) izango da espedienteko, 2.1 oinarriko 1. epigrafean definitutako azken hartzaileentzat eta beren eskaera minimis erregimenera biltzea nahiago duten enpresa txiki eta ertainentzat izan ezik, aplikatzekoa zaien Europako araudiaren eskatzaileko muga izango baitute, eta 2.1 oinarriko 2. epigrafean definitutako azken erabiltzaileentzat izan ezik, bost mila euroko (5.000 €) muga izango baitute espedienteko.

Azken erabiltzaile bati ezin izango zaio ezin kasutan ere bi milioi eta erdi (2,5 M €) baino gehiago eman dagokion deialdi autonomikoaren iraunaldi osoan, eta enpresa berari emandako laguntzak ezin izango du dagokion deialdiaren aurrekontu totalaren % 40 gainditu.

2.1 oinarriko 1., 2., 3. eta 5. epigrafeetan barne hartutako azken hartzaileentzat, azken epigrafe horren kasuan baldin eta merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikorik ez badute, laguntza kostu subentzionagarriaren % 70 izango da ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegitura-instalazioetarako, baita jabe-erkidegoetako kargatze-aurreinstalazioko jarduketetarako ere, betiere aurreko paragrafoko mugak gainditzen ez badira. Kostu subentzionagarriaren % 80raino iritsi ahalko da 5.000 biztanletik beherako udalerrietan daudela justifikatzen diren jarduketetarako.

2.1 oinarriko 4. epigrafean eta 5. epigrafean definitutako azken hartzaileentzat, azken epigrafe horren kasuan baldin eta merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoa badute, kostu subentzionagarriaren % 20 izango da eman beharreko laguntza, betiere kargatze-azpiegitura sarbide publikokoa eta ≥ 50 kW-ko potentziakoa bada.

Aurreko paragrafoan adierazitako laguntzak, portzentajezko 20 puntuan gehitu ahal izango dira enpresa ertainei emandako laguntzen kasuan eta portzentajezko 30 puntuan, aldiz, laguntzak enpresa txikiei bideratuta badaude.

2.1 oinarriko 4. epigrafean eta 5. epigrafean definitutako azken hartzaileentzat, azken epigrafe horren kasuan baldin eta jarduera ekonomikoa badute, kargatze-azpiegitura erabilera pribatuko edo sarrera publikokoa bada, baina 50 kW-tik beherako potentziarekin, kostu subentzionagarrien % 20 izango da eman beharreko laguntza, eta 10 puntuan gehitu ahalko da enpresa ertain eta txikiei emandako laguntzen kasuan. Enpresa txiki eta ertainen kasurako, portzentajezko 10 puntuan gehitu ahalko da laguntza 5.000 biztanletik beherako udalerrietan.

2.1 oinarriko 4. epigrafean barne hartutako enpresa txiki edo ertainak 2. jarduketarako bere laguntza-eskaera 4. oinarriko 4.2 idatz-zatian zehaztutako minimis erregimenera biltzea erabakitzen badu, sarbide publikoko eta  $\geq 50$  kW-ko potentziako kargatze-azpiegituretako inbertsioetarako eman beharreko laguntza kostu subentzionagarrien % 45 izango da enpresa ertainetarako eta % 55 enpresa txikietarako. Portzentajezko 5 puntuan gehitu ahalko dira ehuneko horiek laguntza 5.000 biztanletik beherako udalerrietan kokatutako inbertsioen kasuan.

Azken hartzaileak (2.1 Oinarria)	Laguntza (kostu subentzionagarriaren %)	
	Kokaleku orokorra	Udalerriak <5.000 biztanle
Autonomoak, partikularrak, jabe-erkidegoak eta jarduera ekonomikorik gabeko administrazioa	% 70	% 80
Jarduera ekonomikoa, sarbide publikoko kargatze-puntua eta $P \geq 50$ kW duten enpresa eta erakunde publikoak	% 20 (% 40 enpresa ertaina) (% 50 enpresa txikia)	
Jarduera ekonomikoa, sarbide pribatu edo publikoko kargatze-puntua eta $P < 50$ kW duten enpresa eta erakunde publikoak	% 20 (% 30 enpresa txiki eta ertainak)	% 20 (% 40 enpresa txiki eta ertainak soilik)
Beren laguntza-eskaera minimis erregimenera biltzea, sarbide publikoko kargatze-aukera ezartzea eta $P \geq 50$ kW izatea aukeratzen duten enpresa txiki eta ertainak	% 45 enpresa ertainak % 55 enpresa txikiak	% 50 enpresa ertainak % 60 enpresa txikiak